

2008

EAEko

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV.PLANA

**BOTERE PUBLIKOEN ALORREAN
GAUZATZEARI BURUZKO
JARDUERA TXOSTENA**





**GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO EAE-KO
LAUGARREN BERDINTASUN PLANA BETETZEKO
BOTERE PUBLIKOEN JARDUERA MEMORIAREN
LABURPENA. VIII. LEGEALDIKO JARRAIBIDEAK
(2008. URTEA)**

Ikertzaile nagusia: Ainara Arnoso Martínez doktorea

Koordinatzailea: Maribel Pizarro Pacheco

Idoia Larrañaga Hernández

Gizarte Psikologia eta

Portaera Zientzien Metodologia Saila

Donostia, 2009ko ekaina

AURKIBIDEA

Or.

SARRERA	3
I. ERAKUNDE PUBLIKOEN EBALUAZIOAN ERABILTZEN DUTEN METODOLOGIA ETA DUTEN PARTAIDETZA	
A. METODOLOGIA	
1. BALIOZTAPENAREN HELBURUAK	5
2. BALIOZTAPEN MOTA	6
3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO ERREMINTAK.....	7
B. ERAKUNDE PUBLIKOEN EBALUAZIOAN DUTEN PARTAIDETZA	
ERAKUNDEEN EBALUAZIOAN DUTEN PARTAIDETZA	8
II. LAUGARREN PLANEKO EBALUAZIOAN ESKURATUTAKO EMAITZAK	
1. EKINTZEN EZAUGARRI OROKORRAK	15
2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAKO EKINTZEN ANALISIA	25
3. LAUGARREN PLANAK LORTU DUEN EXEKUZIO MAILA.....	33
4. LAUGARREN PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK.....	37
4.1. Sustatzearekin eta koordinazioarekin erlazio naturiko neurriak	37
4.2. Programazioa eta ebaluazioa.....	42
5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO IKUSPEGIA ERRAZAGO TXERTATZEKO EKINTZAK	44
6. GIZON-EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA SEKTORIALAK ETA TRANSBERTSALAK .	58
III. LORTUTAKO EMAITZEN LABURPENA	78
IV. BALORAZIO OROKORRA	100
ERANSKINA: EBALUAZIOAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE PUBLIKO BAKOITZAREN EKINTZAK	
- Eusko Jaurlaritzako sailak	109
- Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta bestelako erakundeak	123
- Foru aldundiak	147
- Arabako udalak	153
- Bizkaiko udalak	157
- Gipuzkoako udalak	180
- Toki administrazioko beste erakunde batzuk	195

SARRERA

Txosten honen helburua EAEko administrazio publikoek berdintasunaren alorrean hartutako neurriak eta ekintzak ebaluatzeko eta haien segimendua egiteko erreminta bilakatzea da. Asmo horrekin bildu ditugu botere publikoek 2008an jorratutako ekintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren barruan.

Lan hau Psikologia Fakultateko Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak egina da, Emakunderekin (Emakumearen Euskal Erakundea) 2006-2010 aldirako sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren barruan.

Aurreko txostenetako egiturari jarraiki, metodologiaren, emaitzen eta ondorioen aurkezpena lau zatitan dago egituratuta:

Lehen zatiak, labur-labur, egindako ebaluazioaren metodologia biltzen du, eta, horrez gain, ebaluazioan parte hartu duten erakunde publikoen inguruko datuak ere ematen ditu.

Bigarren zatiak lortutako emaitzei egiten die erreferentzia, eta sei zatitan dago antolatuta: botere publikoen ekintzen ezaugarri orokorrak; ardatz estrategikoetako ekintzen analisia; lortutako exekuzio maila; laugarren plana ezartzeko erabilitako neurriak; erakunde publikoek genero ikuspegia politiketan txertatzeko burututako ekintzak; botere publikoek egindako berdintasun politika sektorialak eta transbertsalak.

Hirugarren zatiak aurreko atal bakoitzaren alderdirik nabarmenenak jasotzen ditu; guztia ere administrazioaren joerak ezagutarazteko eta berdintasun politikak betearazteko zer bitarteko erabiltzen diren jakinarazteko.

Azkenik, laugarren zatiak EAEko administrazio publikoek 2008an gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko egindako politiken inguruko balorazio orokorra egiten du.

I. ERAKUNDE PUBLIKOEK EBALUAZIOAN ERABILTZEN DUTEN METODOLOGIA ETA DUTEN PARTAIDETZA

Txostenaren lehen atal honek, labur-labur, laugarren plana ebaluatzeko metodologia eta plan hori ebaluatzeko erakunde publikoen parte-hartze maila azaltzen ditu¹.

A. METODOLOGIA

1. BALIOZTAPENAREN HELBURUAK

Ebaluazioaren azken jomuga kontuan hartuta, helburu nagusia erakunde publikoen urteko jardunen berri izatea da, laugarren planari dagokionez. (Administrazioaren hiru mailetan, Jaurlaritzan edo Administrazio Orokorrean, foru aldundietan eta tokian tokikoan.)

Hona hemen helburu espezifikoak:

- Ardatz estrategikoetan, alorretan, programetan eta proposatutako helburuetan lortutako exekuzio maila aztertzea.
- EAEko administrazio publikoaren erakundeetan plana betetzerakoan erantzukizunak zenbateraino bete diren adieraztea.
- Laugarren planean adierazitako helburuak zenbateraino bete diren aztertzea.
- Egiturak sortzeari eta abian ipintzeari dagokionez, lortutako aurrerapenen berri izaten laguntzeko informazioa ematea:
 1. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politikak sustatzeari, programatzeari eta ebaluatzeari lotutakoa.
 2. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politikak erakunde barruan eta erakundeen artean koordinatzearekin lotutakoak.
 3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politiketan emakumeek eta elkartzeko mugimenduek parte hartzeko aukera ematen dutenak.
- Botere publikoen ekintzak erakustea, genero ikuspegia politika publikoak diseinatzeko, betearazteko, haien segimendua egiteko eta ebaluatzeko prozesuetan txerta dezaten.

¹ Ebaluazioaren alderdi honen inguruko informazio gehiago ikusteko, ikus 2006ko ebaluazioari dagokion txostena.

- Botere publikoek tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko landutako ekintzen berri ematea, edota emakumeek, oro har, zein gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten emakume taldeek duten diskriminazio egoera hautematea, salatzea, jakinaraztea eta desagerraraztea.
- Ekintza guztiak balioestea, erakunde publikoen urteko plangintzetan orientatzen laguntzeko.

2. BALIOZTAPEN MOTA

Honela laburbil daitezke egindako ebaluazioaren ezaugarriak:

- Ebaluazio batutzailea da; izan ere, planaren emaitzei edota ondorioei buruz jasotako informazioa Eusko Legebiltzarrari kontu emateko erabiliko da, plana indarrean dagoen lehendabiziko urtearen laburpena egiteko eta hurrengo planaren inguruko erabakiak hartzeko. Nolanahi ere, ebaluazio hau hezitzailea ere bada, urtero egindako ebaluazioek gidatuko baitituzte erakunde publikoen hurrengo urteetako jardunak, eta, era berean, ebaluazioak EAEko administrazio publikoaren konpromiso maila handitzen lagunduko baitu.
- *Post-facto* egindako ebaluazioa da, laugarren plana indarrean eman ostean planteatzen baita.
- Kanpo balioespen bati erantzuten dio ebaluazioak, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko lantalde batek egina da.
- Ezarpenari buruzko ebaluazioa egin da, laugarren planaren exekuzioaren segimenduaren bitartez. Horretarako, botere publikoek planean adierazitako ardatz estrategikoen, alorren, programen eta adierazitako helburuen inguruan burututako ekintzekin lotutako informazioa bildu da, baita planteatutako ekintzena ere (gomendatutakoak barne). Ebaluazio mota honekin, ondorengo oinarritzko galdera hauei erantzuten saiatuko gara:
 - Zenbateraino exekutatu da plana?
 - Zer-nolako neurriak ipini dituzte abian erakunde publikoek, laugarren plana betetzeko?

- Zer ekintza ipini dira abian erakundeari genero ikuspegia txertatzen laguntzeko?
- Zer berdintasun-ekintza sektorial mota ipini dira abian?
- Zer neurritan ari gara genero berdintasunaren bidean aurrera egiten?

3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO ERREMINTAK

Datuak biltzeko galdetegiak erabili ditugu. Zehazki, sei galdetegi erabili ditugu, laugarren planean bildutako esku hartzeko erreminta bakoitzeko bat:

- Jakintza sortzea;
- Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena;
- Trebakuntza;
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea;
- Arauak sortzea eta egokitzea;
- Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea.

4. LAN ALORRAREN PROZESUA

Aurreko urteetako moduan, 2008ko abenduan Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean ardura politiko handiena dutenei informazio eskutitza eta zegokien ebaluazio materiala (galdetegiak eta dokumentazio lagungarria) helarazi genien,² baita foru aldundietako eta tokian tokiko administrazioko ordezkarietara ere. Posible izan zen kasuetan, berdintasun teknikarietara ere bidali genien esandako materiala. Arartekoaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen kasuan, apirilaren amaiera aldera eskutitz bat baino ez zieten bidali 2008an gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzen inguruko informazioa eskatuz.

Erakunde publikoek, gutxi gorabehera, hilabeteko epea izan dute galdetegiak beteta bidaltzeko.

² Erakunde autonomoen eta enpresa publikoen kasuan, Jaurlaritzako dagokien sailak emango die ebaluazioaren berri, eta haien ardura izango da galdetegiak helaraztea bete ditzaten.

B. ERAKUNDE PUBLIKOEN EBALUAZIOAN DUTEN PARTAIDETZA

Atal honen helburua ebaluazioan zer erakunde publikok hartu duten parte jakinaraztea da, baita informazio bilketarekin lotutako hainbat alderdi garrantzitsuren berri ematea ere (hala nola, ezarritako epeak betetzea, galdetegiak kalitatez betetzea edota betetzerakoan hautemandako zailtasunak).

Lehenik eta behin, laugarren plana betetzeko ardura duten erakundeen zerrenda aurkezten da, administrazioaren maila aintzat hartuta:

ADMINISTRAZIO OROKORRA

- **Eusko Jaurlaritzako sailak:** Lehendakariitza; Ogasuna eta Herri Administrazioa (Lehendakariordetza); Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza; Herrizaingoa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa; Osasuna; Kultura; Lurralde Antolamendua eta Ingurumena; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Garraioa eta Herri Lanak; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura.
- **Erakunde autonomoak:** Emakunde; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan); Euskal Herriko Polizia Ikastegia; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea.
- **Erakunde eta elkarte publikoak:** Osakidetza, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SA (SPRI); Energiaren Euskal Erakundea; EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE, SA); Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER, SA); Itsasmendikoi; Eusko Trenbide Sarea; Euskadi Kirol Portuak SA; Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE); Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, SA (VISESA); Euskotren; Egailan; Uraren Euskal Agentzia
- **Beste erakundeak:** Lan Harremanen Kontseilua eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Arartekoa**

FORU ADMINISTRAZIOA: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

TOKI ADMINISTRAZIOA: Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL), Arabako udalak, Bizkaiko udalak eta Gipuzkoako udalak.

Ebaluazio honetan parte hartu duten erakunde publikoei dagokienez, berriz, hurrengo taulak erakusten du EAEko administrazio publikoaren hiru mailek hartu dutela parte ebaluazioan (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta tokian tokiko administrazioak).

Administrazio Orokorra:

Eusko Jaurlaritzako sailak	12
Erakunde autonomoak	6
Erakunde eta elkarte publikoak	10
Beste erakundeak	1
Arartekoa	1

Foru administrazioa:

Foru aldundiak	3
----------------	---

Toki administrazioa:

EUEDEL	1
Arabako udalak	3
Bizkaiko udalak	27
Gipuzkoako udalak	16

GUZTIRA **80**


Administrazio Orokorra

- **Eusko Jaurlaritzako sail hauek** hartu dute parte: Lehendakaritza; Ogasuna eta herri administrazioa (Lehendakariordetza); Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza; Herrizaingoa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa; Osasuna; Kultura; Lurralde Antolamendua eta Ingurumena; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Garraioa eta Herri Lanak; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura.
- **Erakunde autonomo hauek** hartu dute parte: Emakunde; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Euskal Herriko Polizia Ikastegia; HABE institutua; eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defentsa Erakunde (urteko ekintzen laburpena helarazi digu).
- **Erakunde eta elkarte publiko hauek** hartu dute parte: Osakidetza, EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE, SA); Itsasmendikoi; Eusko Trenbide Sarea; Euskadi Kirol Portuak SA; Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE); Energiaren Euskal Taldea; SPRI; eta VISESA.

Ebaluazioan parte hartu duen beste erakunde bat Euskal Herriko Unibertsitatea da; ekintzen zerrenda helarazi digu, nahiz eta galdetegiak beteta ez dituen bidali.

Bestalde, **Arartekoak** Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezkoen egoerarekin lotutako informazioa bidali du (informazio hori urtero Eusko Legebiltzarrari helarazten dion txostenetik aterata dago).

Administrazio Orokorraren parte-hartzea ebaluazioan (2008)



Foru administrazioa

Ebaluazio honetan, foru aldundietako departamentu hauek hartu dute parte:

- **Arabako Foru Aldundia (n=3 Departamentuak):** Foru Administrazioa; Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak; Gazteria eta Gizarte Sustapena.
- **Bizkaiko Foru Aldundia (n=8 Departamentuak):** Ahdun Nagusia (Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatea); Udalekiko Harremanak eta Administrazio Publikoa; Ogasuna eta Finantzak; Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena; Ingurumena; Nekazaritza; Enplegua eta Trebakuntza; Gizarte Ekintza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia (n=1 Departamentuak):** Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua.

Foru administrazioaren parte-hartzea ebaluazioan (2008)



Toki administrazioa

EUDELEk eta hiru lurralde historikoetako udalek eta mankomunitateek hartu dute parte:

- **Arabako udalak (n=3)**: Gasteiz, Amurrio, eta Laudio.
- **Bizkaiko udalak (n=20)**: Abadiño; Abanto-Zierbena; Arrigorriaga; Balmaseda; Barakaldo; Berriz; Bilbo; Ermua; Galdakao; Gernika-Lumo; Getxo; Gordexola; Leioa; Mungia; Santurtzi; Sestao; Ugao; Urduña; Trapaga; eta Zalla.
- **Bizkaiko mankomunitateak (1)**: Uribe-Kosta (honako udalerriek osatua: Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz).
- **Gipuzkoako udalak (n=12)**: Azpeitia, Bergara, Eibar, Getaria, Itsasondo, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Villabona, Zarautz, Zumaia.
- **Gipuzkoako mankomunitateak (1)**: Urola-Garaia (honako udal hauek osatuta: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, eta Zumarraga).


Datuek adierazten dutenaren arabera, EAEn dauden 251 udalerrietatik 46k (% 18,33) hartu dute parte ebaluazioan; EAEko biztanle guztien % 58,28 (1.241.012) hartzen dute udalerri horiek. 2007an 48 udalek hartu zuten parte, eta EAEko biztanleen % 72,11 ordezkatzeko zuten. Beherakada horren arrazoia hainbat udal handiren falta da; hala nola, Donostia, Portugalete,

Ondarroa edota Errenteria. Udal horietako teknikariek jakinarazi zuten ezin zutela eskatutako informazioa bidali, lan eskerga handiegia zutelako edota langileak falta zituztelako.

Aipatutako 46 udalez gain, beste hamaseik jakinarazi dute eskutitzez, posta elektronikoz edota telefonoz, ez dituztela galdetegiak beteko. Horretarako arrazoiak hainbat dira; esate baterako, 2008an laugarren planarekin lotutako ekintzarik ez dutelako egin, denborarik ez dutelako izan, behar beste giza baliabide ez dutelako edota teknikaria kontratatu berria delako. EAE osatzen duten gainontzeko udalek ez dute ebaluazio honetan parte ez hartzeko arrazoien berri eman; gehienak 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalak dira.

Hurrengo grafikoak parte hartzen duten udalen ordezkagarritasuna erakusten du, biztanle kopuruari dagokionez, hiru lurralde historikoetako bakoitzean eta EAE osoan diren udal kopuruari dagokionez.

Ebaluazioan parte hartzen duten hiru lurralde historikoetako udalen portzentajea, eta ordezkaturako biztanleen portzentajea (2008)



2007arekin alderatuta, deigarria da ebaluazioan parte hartzen duten Gipuzkoako udalek biztanle kopuru askoz ere txikiagoa ordezkatzeko dutela (% 34,4 gutxiago); lehen adierazi dugun moduan, horren arrazoiak udal garrantzitsu batzuek parte hartu ez izana da (hala nola, Donostiak eta Errenteriak). Bizkaian bi udal gutxiagok hartu badute ere parte, apenas nabaritu den ordezkaturako biztanleen portzentajearekin. Araban ez da aldaketarik izan.

II. LAUGARREN PLANEKO EBALUAZIOAN ESKURATUTAKO EMAITZAK

Lortutako emaitzak lau ataletan daude banatuta:

- 1. EKINTZEN EZAUGARRI OROKORRAK:** botere publikoek planaren lau ardatzetan eta esku-hartze eremuetan egindakoak deskribatzen ditu, eta arreta berezia ematen die jorrotutako programei eta helburuei, baita esku hartzeko erabilitako erremintei ere.
- 2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAKO EKINTZEN ANALISIA:** jarduteko lau ardatzetan egindakoen ezaugarriak aztertzen dira, botere publikoek berdintasun politiketan egindakoetan zer elementuk izan duten lehentasuna adierazten dute.
- 3. LAUGARREN PLANAK LORTU DUEN EXEKUZIO MAILA:** laugarren planean definitutako programak eta helburuak zenbateraino bete diren aztertzen du, kontuan hartuta helburuen eta inpaktuaren inguruan egitea aurreikusitako dagoen ebaluazioa egiteko zer-nolako garrantzia duten.
- 4. LAUGARREN PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK:** atal honetan bildutako datuei esker, Administrazio Orokorrak, foru administrazioak eta toki administrazioak egindako sustapen ahaleginaren, koordinazioaren eta kudeaketa sistemaren (plangintza eta ebaluazioa) datuak ezagutuko ditugu.
- 5. ERAKUNDE PUBLIKOEN GENERO IKUSPEGIA POLITIKETAN TXERTATZEKO LANDUTAKO EKINTZAK:** erakundeen barruan berdintasun politikak garatu ahal izateko baldintzak sortzeko helburuarekin egindakoak erakusten ditu (politikariak eta teknikariak sentsibilizazioa, trebatzea edota aholkatzea; gizonen eta emakumeen arteko egoera desberdintasunak agerian uzten dituzten estatistikak prestatzea; giza baliabideak, ekonomikoak...).
- 6. BOTERE PUBLIKOEN EGINDAKO BERTINTASUN POLITIKA SEKTORIALAK ETA TRANSBERTSALAK:** tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko burututako ekintza jakinen berri ematen du, edota emakumeek, oro har, zein gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten emakume taldeek duten diskriminazio egoera hautematea, salatzea, jakinaraztea eta desagerraraztea.

Azkenik, txostena errazago irakurtzeko eta ulertzeko, ezinbestekoa da **ekintza eta jarduera** terminoak bereiztea. Planean planteatutako estrategia jakin bat garatzeko proposamen konkretua da ekintza (plana helburuak lortzeko lan prozesu posible eta egokia izango litzateke); jarduera, berriz, erakunde publiko baten errealitate jakin batetik, baliabideetatik eta eskumenetatik oso gertu dagoen ariketa da.


1. EKINTZEN EZAUGARRI OROKORRAK

Atal honek Administrazio Orokorrak genero politiken inguruan dituen joera nagusiak aurkezten ditu, guztia ere lau **ardatz estrategikoei**, laugarren planeko **esparruei, programei eta helburuei**, erabilitako **esku-hartze erremintei**, zein ekintzak **jasoko dituzten taldeei** dagokienez. Emaidza orokorrak dira, eta EAEko administrazio publiko osoak 2008an landutakoak hartzen dituzte aintzat (**n=1.082**); ebaluazio hauetan parte hartu duten erakunde publiko bakoitzaren emaitza espezifiko nagusiak eranskinean daude bilduta, modu eskematikoan. Arartekoaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen kasuan, eranskin horretan bertan, bi erakunde horiek bidalitako laburpen bat ere bilduta dago, egindako lanen berri ematen duena.

- **Ardatz estrategikoak**

Laugarren planak lau ardatz estrategiko biltzen ditu, eta ardatz horiek zehazten dute datozen urteetan jorratuko diren lehentasunezko auziak, berdintasun politikei dagokienez: mainstreaming-a, jabekuntza, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria. Hurrengo grafikoak erakusten du zenbat jarduera egin dituzten 2008an erakunde publikoek lau ardatz estrategiko horien inguruan.

Ardatz bakoitzean egindako ekintzak (2008)



Aurreko urteetako moduan, generoaren ikuspegia administrazioaren alor guztietan txertatzera bideratutako politikek izan dute lehentasuna (mainstreaming-a), baita emakumezkoen jabekuntza eta partaidetza soziopolitiko lortzera bideratutakoek ere. Bi ardatz horietan egindakoek biltzen dituzte orotara egindakoen hiru laurdenak (n=800; (% 73,93).


- **Esku-hartze esparruak**

Laugarren planak sei eremu biltzen ditu; berdintasuna lortzeko sei esku-hartze esparru funtzional, alegia: kultura; hezkuntza; lana; gizarteratzea osasuna; eta hirigintza eta ingurumena. Edonola ere, egindako ebaluazioan hiru esparru gehiago hartzen dira kontuan: laugarren plana ezartzeko neurriak (berdintasun unitateak, eta erakundez gaindiko egiturak, erakunde artekoak eta gizarte ezarpenerakoak); kudeaketa sistemak (plangintza eta ebaluazioa); eta berdintasunerako zerbitzu orokorrak. Lehendabiziko biek derrigor bete beharreko ekintzak biltzen dituzte, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legeak hala dioelako. Horrenbestez, esan liteke ekintza horiek betearaztea nahitaezko baldintza dela laugarren planean zehaztutako helburuak beteko badira.

Bestalde, berdintasunerako zerbitzu nagusiek, berriz, bi ekintza mota biltzen dituzte: batetik, administrazioan berdintasun politikak garatu ahal izateko baldintzak sorrarazten dituztenak; eta, bestetik, ehundura sozialari begira programatutakoak, berdintasun politiken inguruko interesa, jakintza, inplikazioa pizten dutenak, baita politika horiek ezartzen, ebaluatzen, hausnartzen eta parte harrarazten dutenak ere.

Hurrengo grafikoak aipatutako bederatzi esparruetan egindako ekintzak biltzen ditu.

Ardatz bakoitzean landutako ekintzak(2008)



- | | |
|---|--|
| ■ Laugarren plana ezartzeko neurriak (n=32) | ■ Berdintasunerako zerbitzu nagusiak (n=375) |
| ■ Kudeaketa sistemak (n=31) | ■ Kultura (n=159) |
| ■ Hezkuntza (n=74) | ■ Lana (n=118) |
| ■ Gizarteratzea (n=179) | ■ Osasuna (n=63) |
| ■ Hirigintza eta ingurumena (n=51) | |

Berdintasuna lortzeko zerbitzu nagusien esparruak biltzen du ekintza portzentajerik handiena (n=375; % 34,7). Portzentaje hori interpretatze aldera, pentsa dezakegu botere publikoek interes berezia dutela administrazioaren barruan berdintasun politikak garatzeko baldintza egokiak lortzeko.

Esku-hartze esparruei dagokienez, berriz, gizarteratzearekin lotutako ekintzei lehentasuna emateko joera dagoela nabari da (n=179; % 16,5); kultura (n=159; % 14,7); eta lana (n=118; % 10,9). Joera hori bera nabari da aurreko urteetako planetan ere.

- **Laugarren planeko programak**

Berdintasun politiken ardatz estrategikoak, laugarren planak lehen aipatu ditugun sei esku-hartze esparruetarako finkatutako programen bidez zehazten dira. Beraz, atal honek esandako esku-hartze esparruetan egindakoei bakarrik egiten die erreferentzia (N=644).

Hurrengo koadroko datuek erakusten dute landutako ekintzen % 89,8 laugarren planean jasotako 32 programetatik 19 ezartzeko izan direla (planak biltzen dituen programen % 59,37, alegia).

PROGRAMAK	MAIZTASUNA	%
Kulturan genero ikuspegia txertatzea	11	1,7
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan	26	4,1
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan	78	12,1
Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea	33	5,1
Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea	13	2,02
Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza	34	5,3
Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea	15	2,3
Enplegua eskuratzeko baldintzen berdintasuna	34	5,3
Emakume eta gizonen arteko lanbide baldintzak parekatzea	46	7,1
Bazterkeria jasaten duten emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzea	63	9,8
Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta	87	13,5
Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitze ahalmena	23	3,6
Laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala	17	2,6
Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea	17	2,6
Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-	12	1,9
Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea	12	1,9
Emakumei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea	17	2,6
Genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politiketan eta proiektuetan	25	3,9
Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek	16	2,5
GUZTIRA	579	89,9

Gainontzeko guztiekin alderatuta, hauek izan dira ekintza gehien izan dituzten bi programak:

- Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea (n=87; % 13,5).
- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (n=78; % 12,1).

- **Laugarren planaren helburuak**

Ikusi dugu zein programari eman dioten botere publikoek lehentasunik handiena. Atal honetan, orain, ekintza horiek zer helbururi erantzuteko izan diren zehaztuko dugu. Horretarako, helburuak finkatuta dituzten planaren esparruak hartu ditugu kontuan: berdintasunerako zerbitzu nagusiak eta sei esku-hartze esparruak. Horrenbestez, erreferentziako ekintza kopurua 1.019 izan da.

Hurrengo koadroko datuek erakusten dute aurrera eramandako ekintzen % 67,3 laugarren planean jasotako 76 helburuetatik 17 lortzeko izan direla (planak biltzen dituen helburuen % 22,4, alegia).

PROGRAMAK	HELBURUAK	MAIZTASUNA	%
Berdintasunerako zerbitzu nagusien esparrua (ez ditu programak definituta)	Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea	186	18,2
	Gizartean berdintasun politiketikiko interesa eta inplikazioa zabaltzea	44	4,3
	Berdintasuna bultzatzea xede duten elkarteen sarea handitzea eta sustatzea	73	7,2
	Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan	24	2,4
	Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea.	22	2,2
Kultur arloan genero ikuspegia integratzea	Emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea eta emakumeek tradizioz gizonen egin izan dituzten kiroletara sarbidea izatea, bai eta gizonen tradizioz emakumeek egin dituzten kirolak praktikatzea ere	17	1,7
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan	Emakumearen kultura eta arte sorkuntza bultzatzea, bai eta gizartearen ikuspuntu ez-sexista bultzatzen duena ere	78	7,7
Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea	Pertsonen euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriak hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere	29	2,8
Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza	Ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea	20	1,9
Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea	Enplegu zerbitzuetan genero ikuspuntua txertatzea	15	1,5
Enplegua eskuratzeko baldintzen berdintasuna	Industriako sektore tradizionalan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horrelako lanpostuetan aritzen diren emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea	16	1,6
Emakume eta gizonen arteko lanbide baldintzak parekatzea	Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduerari ematea	16	1,6
	Sektore publikoan eta pribatuan erantzukizuneko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea	20	1,9

Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea	Administrazio publikoetako gizarte ekintza sailtako diagnostikoetan, plangintzetan eta ebaluazioetan genero ikuspuntua integratzea	17	1,7
Bazterkeria jasaten duten emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzea	Pobrezia egoeran eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera	38	3,7
Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea	Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea	50	4,9
	Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea	21	2,1
GUZTIRA		686	67,3


- **Esku hartzeko erabilitako tresnak**

Aurreko txostenetan adierazitako moduan, laugarren planean zehaztutako ekintza guztiek hainbat erreminta behar dituzte ezarriko badira. Zehazki, laugarren planak honako sei hauek biltzen ditu:

- Jakintza sortzea
- Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena
- Trebakuntza
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea
- Arauak sortzea eta egokitzea
- Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea

Sei erreminta horietako bakoitzak oso bitarteko desberdinak behar ditu. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak erakusten du, zeharka bada ere, botere publikoak zenbateraino dauden inplikaturik gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko ekintzak abiarazteko. Era berean, oso bestelakoak dira erreminta bat edota bestea erabiltzeak eragindako ondorioak (esate baterako, ez da gauza bera sentsibilizazio kanpaina bat egitea edota arau bat onartzea).

Hurrengo grafikoko datuek erakusten dute plana betearazten inplikaturik dauden erakunde publikoek zer esku-hartze erreminta erabili dituzten maizen.




Aurreko ebaluazioetako moduan, ekintzarik gehienak (n=609; % 59,8) sentsibilizazioaren, informazioaren eta dibulgazioaren ingurukoak dira, baita zerbitzuak zein baliabideak sortzeari edota egokitzeari buruzkoak ere.

- **Honako talde hauei zuzenduta:**

Botere publikoek burututako ekintzen hartzaile guztietatik, lau taldek jaso dituzte, batez ere, ekintzarik gehienak:

- Emakume helduak, oro har (n=156; % 14,4)
- Administrazioaren hiru mailetako teknikariak (n=142; % 13,1)
- Emakumeen elkarteak (n=98; % 9,1)
- gizon helduak, oro har (n=88; % 8,1)

Jarduera ehuneko handiena jaso duten taldeak (2008)



Hauek dira, gainontzekoekin alderatuta, ekintza kopuru garrantzitsua jaso dituzten beste talde batzuk:

- Hiru administrazioetako teknikariak (n=61; % 5,6)
- Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeak (n=50; % 4,6)
- Hezkuntzako profesionalak (n=42; % 3,9)
- Aukera berdintasunerako profesionalak (n=42; % 3,9)
- Nerabeak (n=42; % 3,9)
- Hiru lurralde historikoetako toki administrazioa (n=41; % 3,8)
- Gazteak (n=35; % 3,2)

2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAKO EKINTZEN ANALISIA

Atal honek lau ardatz estrategikoetako bakoitzean egindakoen xehetasunak biltzen ditu; hau da, botere publikoek, berdintasun politikei dagokienez, zer auziri eman dioten lehentasuna.

• MAINSTREAMING ARDATZA

Orotara, 406 *mainstreaming* ekintza egin dira, eta horietatik gehienak (n=294; % 72,4) laugarren plana ezartzeko neurriak dira, baita administrazioaren barruan berdintasun politikak garatzeko baldintza egokiak lortzera bideratutako plangintza eta ebaluazio jarduerak ere (babesa, koordinazioa, trebakuntza, aholkularitza, etab.). Gainontzeko jardueren (n=112; % 27,6) helburua genero ikuspegia sei esku-hartze eremuetan txertatzea da: osasuna (n=29; % 7,2); hirigintza (n=25; % 6,2); gizarteratzea (n=17; % 4,2); enplegua (n=16; % 3,7); hezkuntza (n=14; % 3,4); eta kultura (n=11; % 2,7).

Datu horiek erakusten dute, aurreko planetako joerari eutsiz, erakunde publikoek ahalegina egiten dutela berdintasun politikak erakundeetan garatzeko oinarrizko ekintzei lehentasuna ematen. Txostenaren laugarren atalak ekintza mota hori jorratzen du.

Sei esku-hartze alorretan egindako 112 jardueri dagokienez, berriz, bi ez daude lotuta programa batekin ere, bat hezkuntzaren alorrean dago txertatuta eta beste bat enpleguarenean; gainerako 110 jarduerak laugarren planean finkatutako zazpi programa garatzera daude bideratuta, hurrengo taulak erakusten duen moduan.

PROGRAMAK	MAIZTASUNA	%
Kulturaren genero ikuspegia txertatzea	11	10,0
Ikastetxeetan hezkidetzaren sustatzea	13	11,8
Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea	15	13,6
Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea	17	15,5
Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea	12	10,9
Emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea	17	15,5
Genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politikan eta proiektuetan kontuan hartzea	25	22,7
GUZTIRA	110	100

Genero ikuspegia politikan txertatzeko ekintza gehienak hirigintzaren eta ingurumenaren sailetan ipini dituzte abian (n=25; % 22,7), eta gutxiena, kulturaren (n=11; % 10). Gainerako lau sailetan, ekintzen portzentajea nahiko antzekoa izan da.

Mainstreaming ekintza horiek guztiak lantzeko, erakunde publikoek aurreko atalean adierazitako sei esku-hartze erremintak erabili dituzte, nahiz eta erreminta horiek ez dituzten maiztasun berarekin erabili. Hurrengo taulan bildutako datuek erakusten dutenaren arabera, jardueren laurdenak baino gehiagok (n=114; % 28,1) baliabideak eta zerbitzuak sortzeari zein egokitzeari eragiten dio erreferentzia. Eskura dauden datuek adierazten dutenez, administrazio publikoan genero ikuspegia txertatzeko baliabideak eta zerbitzu esanguratsuenak hauek izan dira: berdintasun planak eta programak abian ipintzea, gidak eta material didaktikoak prestatzea, eta berdintasun adituak kontratatzea (teknikariak zein aholkulariak).

ESKU-HARTZE TRESNAK	MAIZTASUNA	%
Jakintza sortzea	74	18,2
Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena	79	19,5
Trebakuntza	63	15,5
Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea	114	28,1
Arauk sortzea eta egokitzea	43	10,6
Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea	33	8,1
GUZTIRA	406	100

Sentsibilizatzeko ekintzarik nagusienak honako hauek izan dira: administrazioetan sortutako dokumentazioko hizkuntzaren erabilera berrikustea eta berdintasun politikak hedaraztea gizartean.

Jakintza sortzeko ekintzarik garrantzitsuenen artean, honako hauek daude: sexuaren aldagaia eta/edo genero adierazleak txertatzea egindako azterlanetan; genero ikuspegia txertatzeari buruzko diagnostikoak egitea, eta administrazioaren sailak sentiberatzea zein iragazkortzea politika horiek txertatu beharraren inguruan; gizarte gaietako diagnostikoak egitea, generoaren ikuspegia landuta (enplegua, hirugarren adina, osasuna...); eta generoaren arabera inpaktuaren ebaluazioak egitea.

Arauk sortzeko eta egokitzeko ekintzak, batez ere, administrazioaren hiru mailetako diru-laguntzak zein kontratuak esleitzeko ekintza positiboak txertatzeko egin dituzte. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira kulturaren zein kirolaren alorretan egindako txertaketak, baita esku-hartze sozialaren zein lanaren alorretakoak ere.

Segimenduari dagozkien jarduerak, batez ere, erakundeen arteko eta erakunde barruko koordinazio egiturek egindakoak dira; baita berdintasun planen ebaluazioak eta erakunde publikoek egindako generoaren araberako inpaktuaren ebaluazioak ere.

- **JABEKUNTZA ARDATZA**

Landutako 392 jabekuntza ekintzetatik, ia erdiak kulturaren eta elkartegintzaren esparruetakoak dira (n=107 eta n=85, hurrenez hurren). Zehazki, emakumezkoak kulturaren, artearen eta kirolaren munduan presentzia handiagoa izatearekin daude lotuta. Era berean, ekintza horiek emakumearen presentzia handitzea helburu duten elkarte-ehundura handitzeko eta sustatzeko ere badira, berdintasun politiken inguruko interesa, jakintza eta inplikazioa pizten dutenak, baita politika horiek ezartzen, ebaluatzen eta hausnartzen parte harrarazten dutenak ere.

Administrazioek sustatutako beste jabekuntza esparru bat lanaren alorra da (n=80; % 20,4), eta arreta berezia ipintzen zaio gizonak eta emakumeek lan baldintza berak izateari. Era berean, esanguratsuak izan dira bazterkeria anizkoitza duten edota baztertuta egoteko arriskua duten emakumeen jabekuntza lortzeko ekintzak (n=63; (% 16,1).

Neurri txikiagoan bada ere, ugaltzeko osasunari dagokionez erabakiak hartzeko jabekuntza bilatzen duten jarduerak ere izan dira, baita hirigintzaren, garraioaren edota ingurumenaren alorretan parte hartzera zuzendutakoak ere.

Laugarren planean proposatutako jabekuntza programen arabera datuen analisiak erakusten duenaren arabera, ekintzen % 73 hurrengo taulan adierazten diren zazpi programen barruan biltzen dira.

PROGRAMAK	MAIZTASUNA	%
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan	26	6,6
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan	78	19,9
Enplegua eskuratzeko baldintzen berdintasuna	34	8,7
Emakume eta gizonen arteko lanbide baldintzak parekatzea	46	11,7
Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak zein maila hobetzea	63	16,1
Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitze ahalmena areagotzea	23	5,9
Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdinean parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan	16	4,1
GUZTIRA	286	73

Emakumezkoek kirolaren eremuan duten presentziari eta parte-hartzeari buruzko programari dagokionez, hauek izan dira egindako nagusiak: jakintza sortzea (n=6); sentsibilizazioa (n=6) eta zerbitzuak zein baliabideak sortzea eta egokitzea (n=9).

Kulturaren eta artearen eremuan emakumezkoen presentzia eta parte-hartzea ugaritzeko, ekintza gehienak sentsibilizazioarekin (n=38) eta trebakuntzarekin (n=24) lotuta egon dira. Lehendabizikoan artean emakumezkoek egindako lanak eta obrak nabarmentzera bideratutakoak daude, baita kulturaren munduari emakumezkoek egindako ekarpena eta emakumezkoen sorkuntza kulturala eta artistikoa eztabaidatzea ere. Trebakuntza jardueri dagokienez, emakumezkoen garapen pertsonala eta kulturala, oro har, aberastera bideratutakoak izan dira ugarienak (osasuna, gatazkak menderatzea, autoestimua, literatura...).

Enplegua berdintasun baldintzetan izateko programan, batez ere, sentsibilizazio eta trebakuntza ekintzak egin dira, baita baliabideak eta zerbitzuak sortzekoak ere. Hiru esku-hartze erreminta hauek, batik bat, industria sektorean dagoen gizon-emakumeen desberdintasun kuantitatiboa murrizteko helburuarekin aplikatu dira, baita enpresa ekimenak osatzeko eta sendotzeko helburuarekin ere.

Gizonen eta emakumeen lan baldintzak berdintzeko jakintza sortzea baliatu dute (lan baldintzen inguruko datuak biltzea, diskriminazio posibleak hautemateko); batez ere sektore pribatuan ardura duten karguetan emakumeak ugaritzearen inguruan sentsibilizatzea; baliabideak sortzea, enpresei berdintasun planak prestatzen lagunduta edota sektore publikoari aholkatuta gizon-emakumeen berdintasuna bermatzeko neurriak proposatzeko negoziazio kolektiboan; eta arauak sortzea edota aldatzea, enpresa publikoetan diskriminazio posibleak desagerrarazteko behar besteko bermeekin neurri jakinak abian ipintzeko, sailkapen profesionala berrikusteko, postuen eta soldaten balorazioa egiteko, eta, sektore pribatuan, lizitazioak esleitzeko eta diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta.

Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak eta maila hobetzeko programaren barruan, era guztietako ekintzak egin dira laugarren planean aitaturako talde guztiei zuzenduta. Esku hartzeko erreminta nagusia baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea izan da (n=51); hala nola, pobrezia ekonomikoan edota bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako laguntza osagarriak (sozialak zein ekonomikoak), eta

banantzeko edota dibortziatzeko prozesuan dauden emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzuak.

Emakumeek ugalketa osasunaren inguruko erabakitzeko ahalmena areagotzeko programa betearazteko, esku-hartze erreminta nagusiak sentsibilizazioa eta baliabideak sortzea izan dira. Ekintza horien helburua metodo antisorgailuak eskuragarri ipintzea izan da, baita haurdunaldian, erditzean eta erditze osteko garaian erabakiak hobeto hartu ahal izateko baliabideak ematea ere.

Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan (diseinuan, plangintzan zein hobekuntzetan) emakumeek berdin parte hartzeko programarekin lotutako ekintzei dagokienez, batez ere, sentsibilizazioarekin lotutakoak izan dira, Tokiko Agenda 21ekin eta eskualdeak garatzeko programekin lotutakoak. Neurri txikiagoan bada ere, eremu horietan erabakiak hartzeko eta plangintzak egiteko emakumezkoen presentziaren berri izateko hainbat diagnostiko ere egin dira, eta araudi batzuetan neurriak hartzeko beharra ere ezarri dute, erabakitzeko eta plangintzak egiteko taldeetan emakumezkoen eta gizonezkoen kopuru bera izan dadin.

- **KONTZILIAZIOA ETA KOERANTZUKIZUNA ARDATZA**

Kontziliazioaren eta koerantzukizunaren inguruko 65 ekintza egin dira, eta horietatik % 64,7 (n=42) laugarren planak gai horren inguruan planteatzen dituen zortzi programetatik laurekin daude lotuta.

PROGRAMAK	MAIZTASUNA	%
Ardura banatzearen eta zaintzaren etikaren kultura sustatzea	7	10,8
Denbora eta eskola-azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea	6	9,2
Laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak	17	26,2
Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak	12	18,5
GUZTIRA	42	64,7

Laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko programari dagokionez, berriz, jarduera nagusiak hauek izan dira: amatasun zein aitatasun bajekin lotutako arauak sortzea edota egokitzea; amatasun zein aitatasuna baimenak eta lizentziak erabiltzea sustatzeko helburua duten baliabideak erabiltzearen inguruan sentsibilizatzea eta informatzea, baita mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko daudenen inguruan ere; familia arrazoiengatiko baimen erregimenak zabaltzeko baliabideak sortzea eta egokitzea, baita aitatasunarekin zein amatasunarekin lotutakoak ere; eta, azkenik, ordainsaririk gabeko baimenak baliatzea indarrean dauden legeetan aurreikusi gabeko beste aukera batzuetarako.

Beren kabuz baliatzeko autonomiarik ez duten pertsonen laguntzeko baliabide sozio-komunitarioen programan, ekintzarik gehienak autonomia gabeko pertsonak artatzen lan egiten duten emakumeak/pertsonak orientatzeko gizarte ekintza alorretako zerbitzu espezifikoak sortzearen ingurukoak izan dira.

Ardurak banatzearen eta zaintzaren etikaren kultura sustatzeko programarekin lotuta, ekintzarik gehienak sentsibilizatzeko izan dira. Batez ere, honako talde hauei egon dira zuzenduta: gizonezkoak, haurrak, gazteak, eta administrazioko politikariak zein teknikariak.

Hezkuntzaren esparruan, denbora eta eskola-azpiegiturak egokitze eta berrantolatze programa neska-mutilen koerantzukizuna handitzeko izan da, baita 0-3 urte bitarteko plazak ugaritzeko eta eskola egutegiak zein ordutegiak malgutzeko ere.

Nahiz eta planaren programen markoan ez dauden, kontziliazio eta koerantzukizun jardueren ia bostena euskal gizartearen koerantzukizuna sustatzera bideratuta egon dira, baita familia eredu ekitatiboagoak bideratzera ere.

Ardatz honetan landutako ekintzen % 60 sentsibilizazioarekin lotuta egon dira, baita baliabideak eta zerbitzuak sortzearekin zein egokitzearekin ere.

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARDATZA**

Emakumezkoen kontrako indarkeriaren ardatzak biltzen ditu ekintza guztien % 20 (n=217). Hala, laugarren planak hiru programa proposatzen ditu, erakunde publikoek lehentasuna eman diete horiei ekintzen plangintza egiteko garaian, hurrengo taulak erakusten duen moduan.

PROGRAMAK	MAIZTASUNA	%
Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea	33	15,2
Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza	34	15,7
Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten	87	40,1
GUZTIRA	154	71

Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzeko programaren barruan, ekintza gehienak indarkeria zikloa garaiz hautematearen ingurukoak izan dira, eta, batez ere, honako hauek egin dira programa horren barruan: etxeko indarkeriaren eragina eta arrazoiak aztertzeke azterlanak eta emakumeei egindako sexu erasoak; tokian tokiko protokoloak ezartzeko oztopoen analisisa; herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak; etxeko indarkeriaren zein sexu erasoen biktima diren emakumeak artatzen dituzten profesionalentzako trebakuntza.

Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza emateko programek, gehienbat, ikastetxeetan etxeko indarkeria hautemateko sentsibilizazio eta trebakuntza ekintzak hartzen dituzte aintzat, baita indarkeria prebenitzeko programak prestatzea ere ikastetxeetan ikasleentzat, irakasleentzat, familientzat eta eskola komunitate osoarentzat, oro har.

Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerrarazteko programak, batez ere, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak eta jarduerak hartu ditu aintzat, baita indarkeria mota horrek esparru sozialean, kulturean eta mediatikoan dituen agerpenak aztertzeke ere.

Aitatutakoaz gainera, kuantitatiboki esanguratsuak izan dira azaroaren 25arekin lotutako herritarrentzako sentsibilizazio jarduerak, baita emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa sustatzea eta hobetzea helburu duten jarduerak ere.

3. LAUGARREN PLANAK LORTU DUEN EXEKUZIO MAILA


Atal honek biltzen duen informazioari esker, laugarren planean zehaztutako programak eta helburuak zenbateraino betearazi diren jakin daiteke; hau da, berdintasunerako zerbitzu nagusiak eta sei esku-hartze eremuak.

Hurrengo koadroak planak planteatzen dituen programa eta helburu kopurua erakusten du: 32 programa eta 76 helburu.

ARLOAK	MAINSTREAMING-A		JABEKUNTZA		KONTZILIAZIOA ETA KOERANTZUKIZUNA		INDARKERIA		GUZTIRA	
	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Pro.	Hel.
Berdintasunerako zerbitzu orokorrak	-	2	-	2	-	2	-	2	0	8
Kultura	1	1	3	6	1	1	1	2	6	10
Hezkuntza	1	2	2	5	2	3	1	2	6	12
Lana	1	1	2	6	2	3	1	1	6	11
Gizarteratzea	1	1	1	7	1	1	1	3	4	12
Osasuna	2	5	1	4	1	2	1	1	5	12
Hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena	1	3	2	4	1	2	1	2	5	11
GUZTIRA	7	15	11	34	8	14	6	13	32	76

Adierazitako esparruetarako planteatutako programa eta helburu kopurua maila teorikoan ikusi ostean, hurrengo grafikoak erakusten du ardatz estrategikoko zer programa eta helburu portzentajek izan duen ekintzaren bat, baita helburu bakoitzerako egindako ekintzen batez bestekoa ere.

Jorratutako programen eta helburuen portzentajea, eta helburu bakoitzeko landutako ekintzen batez bestekoa (2008)



Hurrengo grafikoak erakusten duenaren arabera, emakumeen kontrako indarkeriaren ardatzean bete dira gehien programak eta helburuak. Hara hemen:


- Planean planteatutako programetako ekintzen % 100 bete da.
- Planean aurreikusitako helburuetako ekintzen % 100 bete da.
- Helburu bakoitzeko jardueren batez bestekoa nahikoa altua izan da (14,5).

Mainstreaming-aren ardatzean, nabarmendu beharra dago planean aurreikusitako programa guztiak egin direla, eta ardatz hori da, era berean, helburuko jarduera kopuru handiena duena, batez beste.

Aurreko urteetako joerari eutsita, kontziliazioa eta koerantzukizuna da erakunde publikoek gutxien betearazi duten ardatza.

Laugarren planak aurreikusitako sei esku-hartze esparruei dagokienez, berriz, hauxe izan da programen eta helburuek betearazpen maila.

Jorratutako programen eta helburuen ehunekoa, eta esku-hartze esparru bakoitzean landutako jardueren batez bestekoa (2008)



Ohikoa den moduan, erakunde publikoek programen eta helburuen portzentaje handiari heldu diote; edonola ere, esku-hartzeen intentsitateari dagokionez, alde handiak daude. Atal honetako analisisian aurreikusitako sei esku-hartze esparruetan egindako 644 ekintzetatik % 82,4k (n=531), laugarren planean bildutako 32 programetako hamabosti egiten dio erreferentzia:

- Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea (n=87)
- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (n=78)
- Diskriminazio era bat baino gehiago jasaten duten eta baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta maila hobetzea (n=63)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak berdintzea (n=46)
- Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza (n=34)
- Enplegua berdintasun baldintzetan lortzea (n=34)
- Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea (n=33)
- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan (n=26)

- Genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politiketan eta proiektuetan kontuan hartzea (n=25)
- Emakumeek ugalketa osasunaren inguruko erabakitzeko ahalmena areagotzea (n=23)
- Laguntza zerbitzuak eta lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak (n=17)
- Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (n=17)
- Emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea (n=17)
- Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdin parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan (n=16)
- Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (n=15)

Erakunde publikoek laugarren planeko helburuei heltzeko izan duten intentsitateari dagokionez, aldeak handiagoak dira, sei esku-hartze esparruetan egindakoen erdiak (n=321) 68 helburuetatik hamabiri egiten diote-eta erreferentzia. Hauek dira helburuak: lana (n=4), gizarteratzea (n=4), kultura (n=3) eta hezkuntza (n=1).

Bestalde, 2007an heldu gabeko lau helburu ere badaude laugarren planean. Horietatik hiru planaren hiru alorretakoak dira:

- Kultura: komunikabideetan gizonek eta emakumeek berdin parte hartzea.
- Hezkuntza: unibertsitate sistemako erabakitze esparruetara sartzeko sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea.
- Hirigintza eta ingurumena: hiriko elementuen bidez gizon-emakumeei egiten zaien errekonozimendu soziala orekatzea (kale izenak, plazak, monumentuak, etab.).

Beste helburua zerbitzu nagusien eremuari dagokio: antolaketa soziala aldarazteko erremintak sortzea, gizon-emakumeen arteko koerantzukizuna lortzeko eta lana zein familia uztartzeko.

4. LAUGARREN PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK

Atal honetan, laugarren planak eta Berdintasunerako 4/2005 Legeak berak biltzen dituzten neurriak argitzeko informazioa biltzen du, guztiak ere berdintasun politika sustatzeko, koordinatzeko, antolatzeke eta ebaluatzeke.


4.1 Sustatzearekin eta koordinazioarekin loturiko neurriak

Planak hainbat neurri oinarritzotzat hartzen ditu. Neurri horiek gizon-emakumeen arteko berdintasun politikak sustatzeko, programatzeko, aholkatzeke eta ebaluatzeke egiturak sortzeke eta abian ipintzeke daude bideratuta, baita erakundez gaindiko eta barruko koordinazioa lortzeke ere:

- *Gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratiboak*: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeke politikak ezarrarazteke dagokie, baita plana garatzeko ekintza plana sustatzeke eta prestatzeke ere. Era berean, erakunde publikoaren mendeko organoei eta bestelakoei laguntza teknikoak eta aholkularitza emateke ere beren egitekoak da.
- *Gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde barruko koordinazio egiturak*. Administrazio Orokorraren kasuan, berdintasun politikak ezartzeke eta kudeatze mailaren berri emateke; esperientziak trukatzeko; sail arteko ekintzak partekatzeke, sustatzeke eta koordinatzeke; trebeziak garatzeke eta esparru horretarako erremintak sortzeke. Foru eta toki administrazioetan, berdintasun politiken programazioa, segimendua eta ebaluazioa kudeatzeaz arduratuko dira, eta sail arteko ekintza koordinatuak sustatuko dituzte gai horren inguruan.
- *Gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde arteko ezarpen egiturak*. EAEko administrazioaren hiru mailetan garatzen diren berdintasun politikak eta programak koordinatzeko ardura dute.
- *Ezarpen sozialeko egiturak emakumeen partaidetzarako eta politika publikoetako elkartzeko mugimenduetarako*: oro har, dituen funtzioen artean daude EAEko administrazio publikoei aholkularitza emateke berdintasun alorrean; alor horretan egiten diren berdintasun planen eta proiektu arautzaileen inguruko txostenak egiteke;

emakumeen elkarteen arteko lankidetzaz sustatzea; eta emakumeen jabetasunaz sustatzea.

2008an, erakunde publikoek jakinarazi dutenaren arabera, ezaugarri horietako **32 ekintza** izan dira (% 2,96). Hurrengo grafikoak erakusten du nola banatzen diren planean planteatutako lau neurri moten artean:



Grafikoak erakusten duenaren arabera, ekintzarik gehienak berdintasunerako unitate administratiboak abiaraztearekin lotuta egon dira, baita berdintasun politikak sortzearekin eta haien segimendua egitearekin ere, esandako egitura horiek erabilia (biek ere n=10; (% 31,2). Era berean, ohikoa izan da erakunde beraren departamentuen edota alorren arteko jarduerak zein neurriak koordinatzea, baita haietan kolaboratzea eta sustatzea ahalbidetu duten erakunde barneko egiturak sortzea ere (n=7; (% 21,9).

- **Gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratiboak**

Puntu honetan, gizonen eta emakumeen berdintasuna antolatzeke, sustatzeko eta betearazteke politiketarako teknikariak kontratatzearen eta unitate administratiboak sortzearen inguruko informazioa ematen da.

Eskuragarri dauden datuen arabera, 2008an «Genero arloko programen teknikari» plaza sortu da, 134/2008, 168/2008 eta 179/2008 dekretuen bidez. Dekretu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko sailen eta organismo autonomoen lanpostu zerrendak onartu zituen dekretua aldatu dute. Honako sail hauetan gertatu da hori:

- Ogasuna eta Herri Administrazioa
- Industria, Merkataritza eta Turismoa
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendua
- Garraio eta Herri Lan Sailean
- Kultura
- Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

Herrizaingo Sailaren kasuan, gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratibo bat sortu da, eta lehendik zegoen plaza bat egokitu da, genero alorreko lan berriak ipinita.

Gainontzeko sailtako egoera hauxe da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berdintasunerako unitate bat sortzeko izapidea bukatu du; Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena bakarrik falta zaio. Osasun Sailak aldaketa espedientea hasi du, baina Aurrekontu Zuzendaritzaren eta Hizkuntza Politikaren txostenak falta zaizkio. Azkenik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egitura aldatzeko izapide berriak hasteke ditu.

2008an, Jaurlaritzako sailtan sortutako berdintasun teknikarien plazak betetzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak lan poltsa bat sortu zuen.

- **Erakunde barruko koordinazio egiturak**

Ondorengo erakunde publikoek erakunde barruko koordinazio egiturak sortzeko, onartzeko eta abiarazteko zazpi ekintza egin dituzte:

- Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza eta Ingurumen Saila: berdintasun taldearen funtzionamendua (gutxienez urtean hiru bilera egiten dituzte).
- Arabako Foru Aldundia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordea osatzeko, antolatze eta funtzionamenduan ipintzeko erregelamendua onartzen duen Foru Dekretua.
- Arabako Foru Aldundia: Aukera Berdintasunerako Sail Arteko Batzordean foru aldundi horren ordezkariak izendatzen dituen diputatuen kontseiluaren akordioa.

- Bizkaiko Foru Aldundia: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sail Arteko Batzordea sortzea eta abiaraztea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: gizon-emakumeen berdintasunerako sail barruko unitateak, sail arteko talde teknikoak eta batzordea sortzea, osatzea eta abiaraztea.
- Bilboko Udala: Udalaren sail arteko batzordearen funtzionamendua (urtean bi bilera egiten dira).
- Amurrioko Udala: sail arteko batzordea sortzea, berdintasunerako udalaren espazioa.

- **Erakunde arteko koordinazio egiturak**

Hiru erakunde publikok eman dute erakunde arteko koordinazio egiturekin lotutako ekintzen berri:

- Emakunde eta Eudel: Berdinsarea sortzeko eta mantentzeko hitzarmenaren luzapena.
- Urola Garaiko Mankomunitatea: Lehen Berdintasun Plana sustatzeko eta haren segimendua egiteko eskualde batzordea sortzea.
- Arrigorriagako Udala: Bizkaiko Foru Aldundiaren PAREKATUZ sareko kide egin da.

- **Gizarte partaidetzarako egiturak**

Gizarte partaidetzako egiturak sortzera eta abiaraztera bideratutako ekintzen berri bi erakunde publikok eman dute:

- Emakunde: Emakumezkoen Euskal Kontseilua sortzeko legearen aurreproiektua.
- Urola Garaiko Mankomunitatea: eskualdean herritarren parte hartzeko espazio bat sortzeko prozesua hasi du, lehen berdintasun planari segimendua egiteko.

- **Segimendua eta sustapena egituren bitartez**

Erakundeen arteko eta barruko koordinazio egiturek egindako hamar segimendu eta sustapen ekintzaren berri eman dute:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila: alde judizial bakoitzean emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako auzi judizialen hileko zifren segimendua egin da, fenomeno horren bilakaerarekin jarraitzeko eta hartu behar diren neurriak berehala hartzeko ikerketak egiteko helburuarekin.
- Emakunde: Euskadiren Bruselako Ordezkaritzarekin eta Europako Gaietarako Zuzendaritzarekin lankidetzan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekimenen segimendua egiteko.
- Emakunde: Justizia administrazioaren behatokiaren bileretan parte hartzea.
- Emakunde: segimendu batzordeetan parte hartzea eta berdintasunaren alorreko ekarpenak egitea Europako Gizarte Funtzaren programa operatiboari.
- Emakunde: Europako programen eta ekimenen segimendua.
- Bizkaiko Foru Aldundia: sail barruko batzordearen aldizkako bilerak, sailaren barruan eta kanpoan genero berdintasunerako politikak dinamizatzeko.
- Arabako Foru Aldundia: Berdintasunerako Sail Arteko Batzordean parte hartzea.
- Bizkaiko Foru Aldundia: *2004-2007 aldirako emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta genero politiketarako foru plana* betetzeko sail arteko eta barruko batzordean parte hartzea.

Jaurlaritzako sail guztietako teknikariek eta politikariek hartzen dute parte Eusko Jaurlaritzako Sail Arteko Batzordean, nahiz eta bik bakarrik eman duten horren berri: Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak.

4.2 Programazioa eta ebaluazioa

Laugarren plana kudeatzeko bi mekanismo daudela jakinarazten du planak berak: programazioa eta ebaluazioa. Erakunde publikoek emandako informazioaren arabera, 2008an gizon-emakumeen arteko berdintasun politiken programazioarekin eta ebaluazioarekin lotutako 31 ekintza izan dira (berdintasun planak edota programak).

– Programazioa

2008an bederatzi erakunde publikok eman dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasun planak egin edota onartu izanaren berri:

- Gasteizko Udala (bigarren berdintasun plana)
- Santurtziko Udala (bigarren berdintasun plana)
- Urola Garaiko Udala (lehen berdintasun plana)
- Bilboko Udala (hirugarren berdintasun plana)
- Abanto-Zierbenako Udala (bigarren berdintasun plana)
- Tolosako Udala (lehen berdintasun plana)
- Itsasondoko Udala (lehen berdintasun plana)
- Eustat (lehen berdintasun plana)
- Ejeie (lehen berdintasun plana)

Jaurlaritzako lau sailek eman dute urteko berdintasun programa egin izanaren berri, nahiz eta ekintza hori sail guztiek egin duten.

Emakundek jakinarazi du udaletan eta udalez gaindik berdintasun planak egiteko diru-laguntzak emateko deialdiaren berri. Edonola ere, ekintza hori hiru foru aldundiek ere egin dute, EAEko Gizon-emakumeen Berdintasunerako Legearen ebaluazioaren erdibideko txostenak jasotzen duen moduan. Zehazki, hauek dira bideratutako partidak (horietan berdintasunarekin lotutako ekintzak diruz laguntzekoak ere hartzen dira aintzat):

- Emakunde: 577.000 €.
- Arabako Foru Aldundia: 140.000 €.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: 120.000 €.
- Bizkaiko Foru Aldundia: 100.000 €.

2008ko abenduan berdintasun plana duten erakunde publikoak hauek dira:

- 47 udal, bi mankomunitate (lau eta zazpi udalerrik osatuta, hurrenez hurren): hiru Araban daude (% 5,2); 38 Bizkaian (% 65,5); eta 17 Gipuzkoan (% 29,3).
- EAEko hiru lurralde historikoetako foru aldundiak.
- Eusko Jaurlaritzako sail guztiak eta Jaurlaritzaren beste erakunde batzuk; hala nola, Euskotrenbideak, Eje, Eustat, etab.

- **Ebaluazioa**

2008an berdintasun planak ebaluatzearen inguruko zortzi ekintza egin izanaren berri eman da:

- Emakunde: gizonen eta emakumeen berdintasunerako legearen erdibideko ebaluazioaren berri eman du; Eusko Jaurlaritzako sailek sustatutako berdintasun politiken segimendua ezagutarazi du; eta 2007ko laugarren berdintasun planaren ebaluazioarena ere bai.
- Bizkaiko Foru Aldundia: berdintasun planaren ebaluazioarekin lotutako bi ekintzaren berri eman du.
- Era berean, ebaluazio horien berri eman dute Amurrioko, Arrigorriagako eta Ugaoko udalek.

5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO IKUSPEGIA ERRAZAGO TXERTATZEKO EKINTZAK

Hurrengo atalak EAEko erakunde publikoek administrazio publikoei genero ikuspegia txertatzen laguntzeko egindako ekintza guztiak biltzen ditu. Potentzial handiko ekintzak dira; izan ere, efektu biderkatzaile handia dute. Nolanahi ere, ezinbestekoak dira erakunde publikoek berdintasun politika transformatzaileak egingo badituzte, baita gizartean dagoen genero tartea murrizten joateko ere. Laugarren planean honako ekintza hauei egiten zaie erreferentzia:

- Berdintasun politiken inguruan trebatzea eta sentsibilizatzea langileak.
- Ikerketa eta jakintza estatistikak hobetzeko, genero ikuspegia txertatzen hasteko erreminta gisa.
- Genero ikuspegia bateratzen ari diren pertsonen aholku ematea eta laguntzea, eta laguntza horretan erakundean genero ikuspegia errazago txertatzen laguntzeko balio duten erremintak sortzera eta hedaraztera bideratutakoak barne hartzea.
- Mainstreaming-a errazago ezartzeko baliabideak mugiaraztea eta bilatzea.

Era berean, atal honetan Berdintasunerako 4/2005 Legean bertan bildutako ekintzak ere hartzen dira aintzat. Esate baterako, honako hauek:


- Administrazioek egiten dituzten estatistiketan eta azterlanetan genero ikuspegia benetan txertatzen dela ziurtatzea.
- Administrazioeko langileak gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorrean gaitzeko erregulatzea, guztia ere genero ikuspegia eguneroko administratiboan txertatzea ahalbidetuko duen ezagutza praktikoa bermatze aldera.
- Jarduera arautzailean eta administratiboan berdintasuna sustatzea; genero inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa bera bezain garrantzitsua, botere publikoek hizkuntza ez-sexista nahitaez erabiltzea, diru-laguntzak esleitzerakoan eta kontratazioan baloratzeko.

Laugarren planak biltzen duen moduan, neurri mota honekin denboran jarraitua izan behar duen prozesua sustatu eta indartu nahi da: genero ikuspegia txertatzea euskal administrazio publikoaren ekintza orokorretan. Neurri horiek poliki-poliki ezarrita, etorkizunean onartuko diren politika publikoek kontuan izango dute genero ikuspegia plangintzak eta esku-hartzeak egiterakoan, eta, hala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bultzatuko dute.

2008an erakunde publikoetan genero ikuspegia txertatzeko **288 ekintzaren** berri izan dugu; hau da, guztira egindako ekintzen % 26,6.

Ekintza horien erdia, gutxi gorabehera, berdintasunerako zerbitzu nagusien esparruari dagokio (n=158; % 54,9). Esparru horren helburua berdintasun politikak erakundeetan garatzeko oinarrizko betebeharrak osatzen dituzten zerbitzuak definitzen laguntzea da. Zerbitzu horiek berdintasun politiketako arduradunek gomendatutako jarduteko helburu zehatzak eta lan esparruak jasoko lituzkete. Gainontzeko esparruetan ere gomendatzen dira genero ikuspegia alor zehatzetan txertatzeko ekintzak; hala, haietan ere egin dira lehen esandako ezaugarriak dituzten ekintzak, hurrengo grafikoak erakusten digun moduan.

Esparru bakoitzean genero ikuspegia errazago txertatzeko landutako ekintzak (2008)



- Berdintasunerako zerbitzu nagusiak (n=158)
- Kultura (n=19)
- Hezkuntza (n=19)
- Lana (n=12)
- Gizarteratzea (n=33)
- Osasuna (n=17)
- Hirigintza eta ingurumena (n=26)


Nabarmendu beharreko hiru datuak hauek dira: zerbitzu nagusien esparruari dagozkion ekintzak handituz joan direla, lan esparruan ekintza gutxiago izan dela (hamazazpi gutxiago), eta hirigintzan zein ingurumenean ekintza gehiago izan direla (hamar gehiago).

Jarduera horien % 64,6k (n=186) laugarren planaren bost helburutan eragin dute:

- Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea (n=144; % 50).
- Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea (n=17; % 5,9).
- Ingurumen arloko ekintza planetan genero ikuspegia txertatzeko eredu bat ezartzea (n=9; % 3,1).
- Zerbitzu sozialetan genero ikuspegia txertatzea (n=8; % 2,8).
- Praktika klinikorako dauden gidak aldatzea eta berriak egitea genero ikuspegia txertatuta, ikerketa fasetik hasita osasun sistema publikoan aplikatu arte (n=8; % 2,8).

Hurrengo grafikoak erakusten du erakunde publikoek zer esku-hartze erreminta erabili dituzten genero ikuspegia errazago txertatzeko beren ekintzetan.

Esku hartzeko erabilitako erremintak (2008)



Ekintzarik gehienak, batez ere, hezkuntzarekin lotutakoak izan dira (n=85; % 29,5); jakintza sortzea (n=65; % 22,6); Baliabideak zein zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=58; % 20,1); eta sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena (n=46; % 16).

Ondoren, erakunde publikoetan genero ikuspegia errazago txertatzeko egindako ekintzen ezaugarrien berri ematen da.

Jakintza sortzea

Jakintza arloko 65 ekintzen laurdena, gutxi gorabehera (n=19; % 29,2) **sexuaren aldagaia txertatzea** izan zen, modu sistematikoan, azterketak egiterakoan.

Nabarmetzeko moduko beste ekintza mota bat **diagnostikoak egitea izan da**; bai genero berdintasunaren inguruko administrazioaren egoera ezagutzeko, bai udalerrri batzuetako zein eremu jakin batzuetako gizon-emakumeen egoera ezagutarazteko (n=17; % 26,5). Erakunde publiko batzuek adierazi dute diagnostiko horiek egin izanak zer eragin duen:

- Abadiñoko II. Berdintasun Plana egitea.
- Ermuko III. Berdintasun Plana egiten hasiko dira, diagnostikoko ondorioak abiapuntu hartuta.
- Oiartzunen ere plan bat egitea aztertzen ari dira, baina, aurrekontu orokorrak murriztu dituztenez, oraindik ez dago erabakirik.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Plana egitea (2008-2011).
- Tratamendu berezia eta desberdindua ematea; konparazio batera, genero ikuspegia aintzat hartuta datuak aztertzea eta ustiatzea trebakuntza eta berrikuntza proiektuetan. Arauak, legeak edota dekretuak egitea.
- Miokardio infartuaren eta garun-iktusaren arreta (adierazleak eguneratzea gomendio zientifikoak kontuan hartuta eta automatizatutako erregistro klinikoak hobetzea).// Euskadiko ospitaleetako minbizien erregistroaren prozedura hobetzea (gertaera data eta erregistroa sartzeko dataren arteko dekalajea murriztea eta prozedura hobetzea).// Ondesteko minbiziari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeko ikerketa proiektua.// Lehen mailako lehentasunezko eskaintza berrikustea, ebidentzia zientifikoaren gomendioak oinarri hartuta.

Era berean, bost erakunde publikok eman dute **generoaren araberako inpaktuaren ebaluazioak** egin izanaren berri:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Osasun Saila (Osakidetza barne).


Bestalde, Emakundek jakinarazi du Jaurlaritzaren sailek egindako genero inpaktuaren alde aurreko ebaluazio txostenen iruzkinak egin dituela.

Gai horren inguruan, 2008ko legearen erdibideko ebaluazioak adierazten du, alde aurreko ebaluazio mota hori egiteko irizpideak onartu zirenetik, Emakundek 151 generoaren araberako eraginaren txosten jaso eta aztertu dituela; guztiak ere hainbat eratako arauak eta administrazio ekintzei eragiten dietenak (legeak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak). Hala, jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako sail guztiek bidali dituzten genero inpaktuari buruzko ebaluazio txostenak.

Beste ekintza batzuek ondoko esparru hauetan jarduteko erremintak, gidak edota irizpideak balioesten dituzte: praktika klinikoak; ingurumena; hirigintza; langileak kontratatzea eta trebatzea; kirola; eta berdintasun planak egitea.

Administrazio Orokorrek izan ditu jakintzarekin lotutako ekintza gehien (n=48; % 73,8).


Administrazioaren hiru mailetan genero ikuspegia errazago txertatzeko landutako ekintzak (2008)



65 ekintzetatik 21ek (% 32,3) betearazteko ardura zuten erakundearentzako gainkostua izan zuten (1.149.729,13 €); gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Administrazio Orokorrek gastudun bederatzi ekintzaren berri eman du; foru administrazioak bost ekintzaren berri; eta toki administrazioaren kasuan, berriz, zazpi ekintzak izan du gainkostua.

Ondorengo grafikoan agertzen da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Genero ikuspegia errazago txertatzeko jakintza sortzeko gastuaren banaketa hiru administrazioen artean (2008)



Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena


Orotara, administrazioaren barruan genero ikuspegia errazago txertatzeko horrelako ezaugarriak dituzten 46 ekintza egin dira. Horietatik % 67,4 (n=31) honelako ekintza sailen barruan biltzen dira:

- Hizkera ez-sexistaren erabilerarekin lotutako materialak prestatzea eta orientazioa eskaintzea (n=17).
- Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea eta genero indarkeriaren inguruko materiala, datuak eta jarduera protokoloak banatzea horien artean (n=6).
- Teknikariak eta politikariak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea (n=8).

Era berean, sentsibilizazio edota informazio ekintzen berri ere eman zaie teknikariei, era askotako gaien inguruan: genero ikuspegia Tokiko Agenda 21en; ingurumen hezkuntza; eskubideak; bularreko minbizia; emakumeen partaidetza landa inguruetan; droga mendetasuna; tradizioz gizonezkoek egin dituzten lanbideetan emakumezkoak sartzea.

Administrazio Orokorra izan ditu sentsibilizazioarekin lotutako ekintza gehien (n=36; % 78,3).

Genero ikuspegia errazago txertatzeko administrazioaren hiru mailek landutako sentsibilizazio ekintzak (2008)




Erakunde publikoek emandako datuen arabera, sentsibilizazio ekintzak jaso dituzten administrazio langileen artean 1.327,360 emakumezkoak izan dira (% 27,1) eta 967, berriz, gizonezkoak (% 72,9). Hurrengo koadroak erakusten du zer talde profesionalek jaso dituzten ekintza horiek.

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	4	-	4
ADMINISTRAZIO OROKORREAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	199	928	1.127
FORU ADMINISTRAZIOAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	3	-	3
TOKIKO ADMINISTRAZIOAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	10	2	12
HEZKUNTZA ZERBITZUETAKO ETA IKASTETXEETAKO PROFESIONALAK	10	7	17
OSASUN ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	120	30	150
GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	1	-	1
EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOKO PROFESIONALAK	13	-	13
Guztira	360 (% 27,1)	967 (% 72,9)	1.327

Egindako 46 sentsibilizazio ekintzetatik 13k (% 28,3) betearazteko ardura zuten erakundearentzako gainkostua izan zuten (120.974,88 €); gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Genero ikuspegia errazago txertatzeko sentsibilizazio ekintzei dagokien gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailetan (2008)



Foru administrazioak bideratu du diru gehien administrazioan genero ikuspegia txertatzen laguntzeko sentsibilizazio eta informazio ekintzetan.


Trebakuntza

Orotara, 85 trebakuntza jarduera egin dira administrazioen barruan. Horietatik % 78,8 (n=67) honelako ekintza sailen barruan biltzen dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko trebakuntza (hainbat alorretako administraziooko profesionalak eta politikari zein teknikariak (n=27)
- Genero ikuspegia bakoitzaren lan eremuan txertatzeari buruzko trebakuntza (lana, gazteria, drogaletasuna, aisialdia, Tokiko Agenda 21, etab.) (n=14).
- Hainbat alorretako profesionalei emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko trebakuntza espezializatua eskaintzea, baita jarduera protokoloak prestatzeko eta aplikatzeko trebakuntza ere (n=14)
- Irakasleentzako, Berritzeguneetako arduradunentzako eta aisialdiko begiraleentzako trebakuntza hezkidetzaren inguruan (n=7)
- Trebakuntza hizkera ez-sexistaren erabilera gai hartuta (n=5)

Administrazio Orokorrak izan ditu trebakuntzarekin lotutako ekintza gehien (n=41; % 48,2), hurrengo grafikoak erakusten duen moduan.

Genero ikuspegia errazago txertatzeko administrazioaren hiru mailek landutako trebakuntza ekintzak (2008)




Trebakuntza jaso duten administrazioko profesionalen kopuruari buruz erakunde publikoek eman dituzten datuak biltzen ditu hurrengo koadroak (% 56,9 emakumezkoak eta % 43,1 gizonezkoak).

TALDEAK	emakumeak	gizonak	guztira
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN POLITIKOAK	12	13	15
FORU ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	11	-	11
TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	23	33	56
ADMINISTRAZIO OROKORREAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	194	58	252
FORU ADMINISTRAZIOAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	305	139	444
TOKIKO ADMINISTRAZIOAN ERANTZUKIZUN TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	190	124	314
ENPLEGUAREN ETA TREBAKUNTZAREN ALORREKO PROFESIONALAK	29	6	35
POLIZIAKO PROFESIONALAK	256	602	858
HEZKUNTZA ZERBITZUETAKO ETA IKASTETXEETAKO PROFESIONALAK	178	66	244
OSASUN ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	137	40	177
KULTURAREN ALORREKO PROFESIONALAK	60	16	76
GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	45	2	47
EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOKO PROFESIONALAK	15	1	16
Guztira	1.455 (% 56,9)	1.100 (% 43,1)	2.555

2008an trebakuntza jaso duten administrazioko profesionalen % 33,6 Poliziako talde profesionaleko kideak dira (n=858). Administrazioaren hiru mailetan trebakuntza jaso duten arduradun teknikoaren kopurua ere esanguratsua izan da (guztira 1.010). Orduen batez besteko orokorra 30 izan da.

Trebakuntza jardueren % 57,6k (n=49) gainkostua izan zuten betearazi behar zituzten erakundeentzat (523.059,5 €); gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Trebakuntza ekintzen gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailen artean (2008)



Gutxi gorabehera trebakuntza jardueretara bideratutako hiru laurdena Administrazio Orokorreko beste erakunde batzuk trebatzeko jardueretarako izan da.

Baliabideak eta zerbitzuak


Baliabideak eta zerbitzuak sortzeko zein egokitzeko 52 ekintza egin dira, administrazioko langileek genero ikuspegia errazago txerta dezaten. Horietatik % 76,9 (n=40) honelako ekintza sailen barruan biltzen dira:

- Zenbait gairen inguruan aholkuak eta laguntza eskaintzea eta berdintasun politikaren inguruko proposamenak egitea. Gai horiek izango dira, besteak beste, aurrekontuak, hezkuntza, lana, estatistikak, diru-laguntzak, trebakuntza, kontziliazioa, langileak, gazteria eta aisialdia. (n=15).
- Gidak edo material didaktikoak prestatzea eta/edo banatzea (hizkeraren erabilera ez-sexista; laneko jazarpena edo sexu jazarpena gertatzen den egoeretan bitartekaritza eskaintzea; berdintasun alorrean lan egiteko langileak kontratatzea; osasuna; emakumeen aurkako indarkeria; turismoa; nazioarteko lankidetzak; eta kirola (n=10)
- Emakumeen eta gizonen berdintasunean espezializatutako teknikariak edo aholkulariak kontratatzea, lanaldia hedatzea (n=6)

- Trebakuntzan dauden beharrak detektatzeko, trebakuntza planak prestatzeko eta, oro har, jardueren plangintza egiteko barneko lantaldeak sortzea (n=5).
- Diru-laguntzak, laguntza ekonomikoa (n=4)


Era horretako ekintzen erdia baino gehiago Administrazio nagusiak egin ditu (n=33; % 56,9).

Genero ikuspegia errazago txertatzeko administrazioaren hiru mailek baliabideak eta zerbitzuak sortzeko eta egokitzeko landutako ekintzak (2008)



Ekintzen erdiak (n=29) gainkostua eragin zuen betearazteko ardura zuten erakundearentzat (735.453,20 €); gainerakoan ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Genero ikuspegia errazago txertatzeko zerbitzuen eta baliabideen arloan izan den gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailen artean (2008)



Grafikoak erakusten duenaren arabera, Administrazio Orokorrak eta foru administrazioek bideratu dute gastu gehien teknikariei eta profesionalei zerbitzu zein baliabide gehiago emateko, administrazioan genero ikuspegia errazago txerta dezaten.

Arauk sortzea eta egokitzea

Orotara 23 ekintza izan dira, eta, horietatik % 47,8 (n=11) kontratazioetan, diru-laguntzetan edota lankidetzan hitzarmenetan berdintasun klausulak edota ekintza positiboko irizpideak txertatzearen ingurukoak dira.


Hiru ekintza gizon-emakumeen arteko paritatea bermatzen duten klausulak txertatzearen ingurukoak izan dira sarien epaimahaietan, lehiaketetan eta abarretan.

Agertu den beste gai bat berdintasun auziak agertzea izan da, hautaketa proben deialdietan eta praktika klinikoetarako gidak idaztearen inguruko araudietan.

Duen garrantzia dela eta, Autonomia Erkidegoko eta bere sektore publikoko administrazioaren kontratazioan gizarte eta ingurumen irizpideak zein bestelako politika publikoak sartzeari buruz onartutako ebazpena nabarmentzen da.

Era horretako ekintzen erdia baino gehiago Administrazio Orokorrak egin ditu (n=12; % 52,2).

Genero ikuspegia errazago txertatzeko arauak sortzeko eta egokitzeko administrazioaren hiru mailek landutako ekintzak (2008)



Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea

Horrelako ezaugarriak dituzten hamaika ekintza egin dira:

- Berdinsarea sareko segimendu batzordea koordinatzea eta dinamizatzea.
- Fiskaltzarekin etengabeko harremanean jarraitzea etxeko indarkeria egoeren jarraipena egiteko. Kasu larrienei buruzko informazioa trukatu da, bi alderdiek egin beharreko jarduerak koordinatuz eta etxeko indarkeria eta genero indarkeriaren kasuistika jorratuz.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saileko hainbat arauen segimendua egitea.
- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzak emateko programa arautzeko dekretuaren zirriborroa egiten parte hartzea
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko bigarren akordioaren zirriborroa prestatzeko lanetan parte hartzea
- Indarkeriaren Aurkako Protokoloaren segimendua egiteko batzordean parte hartzea
- IKS sistemaren alorrean, 2007an sexua aldagaia txertatu zen pertsona fisikoak kudeatzeko modulu guztietan, eta ogibideen taulan bi generoak ipini ziren. Hala, esandako trataeraren erabilera sendotzea lortu zen hamasei autonomia erkidegoen arteko ETER interoperabilitate proiektuaren barruan, baita esandako proiektu horretan parte hartzen duten gainerako erakunde publikoetan eta pribatuetan ere. Proiektu horrek autonomia erkidegoetako izapide administratibo elektroniko guztiak

estandarizatu nahi ditu, ingurumen datuak kudeatzeari dagokionez.

- 2006ko Osasun Plana ebaluatzea, genero adierazleak txertatuta.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundeen arteko akordioa betetzeari buruzko ebaluazioa.
- Enpresa eta erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko aholkularitza erakunde homologatuen jarraipena egitea.
- Genero desberdintasunaren bilakaeraren segimendua egitea Bizkaiko Lurralde Historikoan.


Ekintza horiek erakunde hauek egin dituzte: Emakunde (n=2); Arabako Foru Aldundia (n=2); Bizkaiko Foru Aldundia (n=1); Gipuzkoako Foru Aldundia (n=1); Osasun Saila (n=1); eta EUDEL (n=1); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=1); Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (n=1); eta Herrizaingo Saila (n=1).

6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA SEKTORIALAK ETA TRANSBERTSALAK

Botere publikoek jakinarazi dutenaren arabera, 2008an **732 ekintza** izan dira tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko, edota emakumeek oro har zein gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten emakume taldeek duten diskriminazio egoera hautemateko, salatzeke, jakinarazteko eta desagerrarazteko. Hau da, jarduera guztien % 67,6.

Grafikoan bildutako informazioak erakusten du egindako jardueren % 73,8 planaren lau esparru hauetan daudela bilduta: zerbitzu nagusiak (n=218; % 29,8); kultura (n=139; % 19); gizarteratzea (n=144; % 19,7); eta lana (n=105; % 14,3).

**Gizon-emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzera bideratuta
esparru bakoitzean landutako ekintzak (2008)**




Laugarren planean bildutako eta erakunde publikoek esku hartutako 71 helburuen artean, hamabost helburuk egindako ekintzen (n=459) % 62,7 biltzen dute:

- Emakumeen sormen kulturala eta artistikoa areagotzea baita gizartearen ikuspegi ez sexista bultzatzen duena ere (n=74; % 10,1).
- Berdintasuna sustatzen lan egiten duten elkarteak ugaritzea (n=72; % 9,8)
- Erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=43; % 5,9).
- Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (n=39; % 5,3).
- Pobrezia egoeran eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera (n=37; % 5,1).
- Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea (n=32; % 4,4).
- Pertsonen euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak hedabideetatik baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriaz hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere (n=28; % 3,8).
- Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan (n=20; % 2,7).

- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (n=20; % 2,7).
- Sektore publikoan eta pribatuan erantzukizuneko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea (n=20; % 2,7).
- Ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea (n=17; % 2,3).
- Enpresa ekimenak abian jartzearen eta indartzearen alorrean kopuru aldetik dagoen desberdintasuna murriztea, batez ere, ordezkari txikiegia duten sektore eta lanbideetan sustatzaileen partaidetza areagotuta (n=16; % 2,2).
- Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babeserik jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea (n=15; % 2).
- Tratu txarren eta sexu eraso biktima direnen arreta beharrei kalitate eta eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta erantzutea eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programan jasotako neurriak ezartzen direla bermatzea (n=13; % 1,8).
- Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduererik ematea (n=13; % 1,8).

Hurrengo grafikoak erakusten du tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko eta emakumeek bizi duten diskriminazio egoera hautemateko, hedatzeko eta desagerrarazteko gehien erabilitako esku-hartze erremintak baliabideak eta zerbitzuak sortzea zein egokitzea izan direla (n=243; % 33,2), baita sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena ere (n=227; % 31).

Erabilitako esku-hartze erremintak (2008)



Hurrengo orrialdeetan landutako ekintzen zenbait ezaugarri biltzen dira, erabilitako esku-hartze erremintaren arabera.

Jakintza sortzea


Orotara, jakintzarekin lotutako 82 ekintza ildo izan dira; horietatik % 40,2 (n=33) planean bildutako hurrengo zortzi ekintza hauekin daude lotuta:

- Etxeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoiak eta eragina aztertzea, baita gertaera horiek salatzeke erabakian esku hartzen duten faktoreak ere. Arreta berezia ipiniko zaie diskriminazio anizkoitza bizi duten emakumeek salaketa ipintzeko edota bertan behera uzteke erabakian esku hartzen duten faktoreek (ezgaitasunen bat duten emakumeak, etorkinak, adin txikikoak...). Era berean, kontuan hartuko da zergatik emakumeen portzentaje nabarmen batek zergatik ez dakien eraso baten ostean nora jo, nahiz eta horretarako baliabideak bideratu (n=7).
- Parte hartzeko prozesuak dituzten ikerketak egitea, biktimen arreta hobetzeko eta arreta zerbitzu hobeak antolatzeko bide emango duten metodologia egokiekin (n=6).
- EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko oztopoak aztertzea eta neurri zuzentzaileak ezartzea (n=4).

- Ikerketa epidemiologikoak sustatzea elikaduraren inguruko jarreran nahasteen inguruko benetako eraginak eta nahasteen arrazoiak jakiteko (n=4).
- Emakumeak udalerrian seguru sentitzen ez diren tokiak identifikatzeko diagnostikoa egitea (garraio publikoak barne). Horretarako, beharrezkoa da udalerriko emakumeek parte hartzea. Lehen mailako esku-hartzea eskatzen duten puntuak adierazi beharko dira (n=3).
- Genero ikuspegia duten politika publikoen inguruko jakintza sorrarazten duten azterketak egitea (n=3).
- Herritarren iritzari buruzko informazioa biltzea sustatzea, bai metodologia kuantitatiboak (inkestak), bai kualitatiboak (eztabaidaguneak, foroak, lantaldeak) erabilita (n=3).
- Eskolan eta eskolaz kanpo kiroletan generoen arteko ezberdintasuna eragiten duten faktoreak ikertzea, batez ere gizartearen genero ikuspegiaren oinarritutako nesken eta mutilen kirol praktikak mugatzen dituzten faktoreak (n=3).


Era horretako jakintza ekintzen erdia baino gehiago Administrazio Orokorra egin ditu (n=48; % 58,5).

Gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko administrazioaren hiru mailek jakintzaren inguruan landutako ekintzak (2008)



Guztira, 32 ekintzak (% 39) betearazteko ardura zuten erakundearentzako gainkostua izan zuen. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Orotara, jakinarazitako gastua 582.468,9 €-koa izan da. Ondorengo grafikoan agertzen da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Jakintzarekin lotutako ekintzen gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailatan (2008)



Jakintza sortzera, orotara, Administrazio Orokorrak bideratu du diru gehien (jakinarazitako guztiaren % 64,1).


Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena

Sentsibilizatzeko, informatzeko eta hedatzeko jarduerak, guztira, 227 izan dira. Horietatik erdia (n=114; % 50,2) laugarren planeko hamar ekintzarekin daude lotuta:

- Berdintasun politikak hedarazteko prozesuak ugaritzea komunikazio kanpainak eginda, komunikabideetan berdintasunarekin lotutako auziak agertzeko ahalegina eginda, hitzaldiak, jardunaldiak edota kongresuak antolatuta... (n=31).
- Emakumeen kontrako indarkeriaren eta haren manifestazioen erroen inguruko sentsibilizazio kanpainak egitea herritarrentzat, batez ere esparru sozialean, kulturean eta mediatikoan. Guztia ere irudi eta eduki sexistak identifikatzeko eta salatzen animatzeko (n=28).

- Emakume artistek arteko topaketak eta jardunaldiak antolatzea beren lana balioesteko, esperientziak trukatzeko eta sareak sortzeko moduak sistematizatzeko (n=22).
- Administrazioak sortu edo sustatutako kultura eta arte ekoizpenaren hedapen jardueretan emakumezkoek egindako lanak eta emakumeek kulturari egindako ekarpena islatzen dutenak sartzea (n=12).
- Emakumeen elkarteak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko lanetan aritzen direnak agerikoago egitea (n=7).
- Gurasoentzako informazio eta trebakuntza hitzaldiak antolatzea, emakumeen kontrako indarkeriari buruz (n=6).
- Prentsan, irratian eta telebistan komunikazio kanpainak sortzea, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko helburuarekin (n=6).
- Indarkeriaren zikloaren eta horren biktima diren emakumeentzako laguntzen inguruko sentsibilizazio, informazio eta hedapen-jarduerak egitea. Helburu nagusia herritarrei garaiz antzematen erakustea eta laguntzaile informal bezala joka dezaten lortzea da (n=5).
- Mutilek eta neskek jarrera sexual autonomoa eta arduratsua izan dezaten informazioa eta hezkuntza eskaintzeko programak prestatzea (n=4).
- Dokumentuak berrikustea eta egokitzea hizkera ez-sexista izan dezaten (n=4; %).

Gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko administrazioaren hiru mailek sentsibilizatzeko landu dituzten ekintzak (2008)



Toki administrazioak egin ditu sentsibilizazio ekintzen erdia baino gehiago (n=127; % 55,9).

Egindako 227 jardueretatik 40 (% 17,6) ezaugarri bereziak dituzten taldeei zuzenduta egon dira: hamabost etorkinei bideratuta; eta 25 urritasunen bat duten pertsoneri.


38 jardueratan uztarketa neurriak aurreikusi zituzten (% 16,7): ordutegiak egokitzea (n=19); eta haurrak zein mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko zerbitzuak (n=19).

Erakunde publikoek emandako datuen arabera, sentsibilizazio, informazio eta hedapen jarduerak 14.435 lagunengana iritsi dira; horietatik 9.489 emakumezkoak (% 65,7) eta 4.946 gizonezkoak (% 34,3).

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
BAZTERKERIA JASATEKO ETA GIZARTETIK KANPO GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	30	-	30
GIZARTEA, ORO HAR	7.912	2.021	9.933
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	814	51	865
Guztira	8.756 (% 65,7)	2.072 (% 34,3)	10.828

Sentsibilizazio jardueren % 65,2k (n=148) gainkostua izan zuten betearazi behar zituzten erakundeentzat (2.268.955,28 €); gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Sentsibilizazioaren lotutako ekintzen gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailen artean (2008)



Sentsibilizazio eta informazio jardueren inguruan jakinarazitako gastuaren erdia baino gehiago Administrazio Orokorrek egin du.

Trebakuntza

Trebakuntzarekin lotutako 90 jarduera egin dira, eta horietatik % 66,7 (n=60) hurrengo hamar ekintzen inguruan biltzen da:


- Emakumeentzako garapen pertsonalaren inguruko ikastaroak eskaintzea, arlo guztiak jorratuz (n=23).
- Emakume ekintzaileei eta enpresaburuei zuzendutako programetan ekintzaileen jardueran faktore psikosozialek duten eraginari buruzko gogoetarako moduluak sartzea eta zeharkako gaitasunak eta berrikuntzarako gaitasuna izateko trebakuntza ere eskaintzea, esperientzian oinarritutako metodologia erabilita (*mentoring, coaching, eta abar*) (n=6).
- Indarkeriaren prebentziorako mintegiak, hezkuntza zentroein zuzenduta (n=5)
- Elkarte, talde eta gizarte eragileentzako biltzeko, gogoetak egiteko eta esperientziak trukatzeko jardunaldiak antolatzea (n=5).
- Emakumeentzako jabeakuntza ikastaroak (n=4).
- Hezkidetzak ikastaroak (n=4)

- Autodefentsa mintegiak (n=4)
- Emakumeentzako trebakuntza jarduerak antolatzea («bikoteen arazoak», «gatazkak konpontzea», «maitasun arloko negoziazioak»...). Helburua, zeharka bada ere, emakumeek indarkeriaren zikloaren berri izatea eta indarkeriaren biktima izanez gero ziklo horretan beren burua kokatzea izango da (n=3).
- Gizonentzako trebakuntza ikastaroak antolatzea erantzunkidetasunari buruzko jakintzak eta sentsibilitatea sakontzeko. Emakumezkoentzat antolatutakoak, berriz, bizi garapen pertsonala, familiara eta profesionala izatearen garrantziaz sentsibilizatzeko izango dira (n=3)
- Prestakuntzaren eskaintzan hainbat modulu sartzea antolaketa eredu berriei, lidergorako estiloari, ekoizpen moduei eta abarrei buruzkoak. Industria sektorean lan bila dabiltzan emakumeentzat prestakuntza osagarria eskaintzeko moduluak ere bai (n=3).

Emandako trebakuntza jarduera bakoitzak, batez beste, 125 ordu izan ditu.

Trebakuntza jardueren ia laurdena (n=20; % 22,2) ezaugarri bereziak dituzten taldeetara egokituta egon dira (etorkinak, urritasunak dituztenak); eta % 44,4k uztarketa neurriak aurreikusi ditu (n=40): ordutegiak (n=28) eta haurrak zein mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko zerbitzuak (n=12).

Gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko administrazioaren hiru mailek antolatutako trebakuntza ekintzak (2008)




Toki administrazioko erakundeek ipini dituzte abian trebakuntza ikastaro gehien (n=71; % 78,9).

Antolatutako trebakuntza jardueretan 7.363 pertsonak hartu du parte; horietatik 5.957 emakumeak (% 80,9) eta 1.406 gizonezkoak (% 19,1).

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
BAZTERKERIA JASATEKO ETA GIZARTETIK KANPO GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	2.875	-	2.875
GIZARTEA, ORO HAR	3.005	1.402	4.407
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	77	4	81
Guztira	5.957 (% 80,9)	1.406 (% 19,1)	7.363

Trebakuntza jarduera guztietatik, 72k (% 80) gainkostua izan zuten betearazi behar zituzten erakundeentzat (2.928.670,98 €); gainerako jarduerak ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasunerako trebakuntza ekintzen gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailen artean (2008)



Hiru administrazioetatik tratu berdintasuna eta gizon-emakumeen aukera berdintasuna sustatzeko trebakuntza jarduerak burutzeko baliabide ekonomiko gehigarri gehien Administrazio Orokorrek ipini du.

Baliabideak eta zerbitzuak

Orotara baliabide eta zerbitzu espezifikoak sortzeko zein egokitzeko 243 ekintza izan dira. Ekintzen % 55ek (n=134) laugarren planean jasotako hamazortzi jarduera hauei egiten diete erreferentzia:


- Emakume elkarten barruan parte hartzeko prozesuak sustatzea, eta emakumeen jabeakuntzari mesede egingo dioten eta gizon-emakumeen berdintasuna handituko duten gaiei zein esparru politikoei lehentasuna ematea (n=4).
- Emakumeei eta emakume elkarteei eskubideen eta baliabideen inguruko aholkularitza ematea (n=10).
- Emakumeen elkarteentzako eta berdintasunaren alde lan egiten duten beste elkarte batzuentzako diru-laguntzen programak (n=22).
- Berdintasunerako emakumeen elkarteei lokalak edota materiala alokatzea (n=5).
- Elkartegintza mugimenduaren eta berdintasun politiken arduradunen arteko harreman zein komunikazio mekanismo egonkorak ezartzea, elkarren artean jakintza truka dezaten eta elkartegintza mugimendua indartzeko neurriak eguneratzeko (n=8).
- Emakume elkarteek edota berdintasunaren alde lan egiten dutenek parte hartzeko egiturak dinamizatzea (n=8).
- Maskulinitate ereduak eta berdintasunean oinarritutako harreman indibidual eta sozialak lantzeko gizonen lantaldeak sortzea sustatzea (n=4).
- Sail eta erakunde arteko koordinazioa bultzatzea, indarkeriaren kontrako borrokarako (n=8).
- Emakumeen eta gizonen kirol jarduerak babestea emakumezkoen partaidetza gutxiengoa den modalitateetan (n=4).
- Emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzuak (n=22).
- Laguntza sozial eta ekonomiko osagarriak ezartzea, txirotasunaren feminizazio prozesuek eragindako bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko... (n=8).
- Prostituzioan aritzen diren emakumeek atsedeen hartzeko eta orientazioa emateko zentroak sortzea... (n=4).

- Herri administrazioetako gizarte ekintza arloetan autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeei/pertsonei arreta eta orientazioa eskaintzeko zerbitzua sortzea. Honako zerbitzuak eskainiko dira: gogoetarako taldeak, trebakuntza ekintzak, laguntza psikologikoa, gizarte eta ekonomia baliabideen inguruko orientazioa; laguntza emateko eta atsedeen hartzeko sistemak (n=4).
- Berdinsarea ezartzea eta indartzea: indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko udalerriak. Emakumeen kontrako indarkeriaren kontra egiteko irizpide homogeneous jarraituko dira, biktimei arreta koordinatua eta hobea emateko helburuarekin (n=5).
- Tratu txarrak edota sexu erasoak bizi dituzten emakumeentzako abegi-etxeei eustea (n=4).
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak lan munduan txertatzeko programak (n=5).
- Emakume etorkinei eta gutxiengo etnikoetakoei elkarteak sortzen eta gizartean parte hartzen laguntzea (n=5).
- Emakumearen kontrako etxeko indarkerian espezializatutako familiako esku-hartze baliabideak abian ipintzea (n=4).

Zerbitzuak eta baliabideak sortzeari zein egokitzeari dagokionez, 29 ekintzatan (% 11,9) ezaugarri bereziak dituzten taldeak egokitzeko lanak egin ziren (etorkinak; urritasunen bat dutenak; garraiorako eta joan-etorri geografikoetarako laguntzak). Beste 42 ekintzatan (% 13,1) zerbitzuaren zein baliabidearen hartzailen lan eta familia bizitza uztartzeko neurriak aurreikusi ziren; ordutegiak egokitzea (n=32); eta haurrak zein mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko zerbitzuak (n=10).

Grafikoak erakusten duen moduan, Administrazio Orokorrak eta toki administrazioak egin du lanik gehien baliabideak sortzeko eta egokitzeko (% 39,5 eta % 39,1, hurrenez hurren).

**Gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko
administrazioaren hiru mailek baliabideen eta zerbitzuen inguruan
landutako ekintzak (2008)**




Erakunde publikoek emandako datuek erakusten dute 37.095 pertsonak baliatu dituztela gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko baliabide zein zerbitzu gehien; horietatik 27.812 emakumeak (% 75) eta 9.283 gizonak (% 25) izan dira.

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
BAZTERKERIA JASATEKO ETA GIZARTETIK KANPO GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	3.541	169	3.710
HAURRAK	10.114	1.674	11.788
GAZTEAK	2.333	1.128	3.461
HIRUGARREN ADINA	18	-	18
GIZARTEA, ORO HAR	8.039	6.312	14.351
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	3.767	-	3.767
Guztira	27.812 (% 75)	9.283 (% 25)	37.095

Egindako 243 ekintzetatik, 139k (% 57,2) gainkostua izan zuten betearazi behar zituzten erakundeentzat (11.329.400,05 €); gainerakoan ez zuten gasturik sortu, edo ez zen gastuei buruzko daturik eman. Honakoa da gastu osoa, administrazioaren hiru mailatan banatuta.

Gizon-emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzera bideratutako baliabideak eta zerbitzuak abiarazteko ekintzen gastuaren banaketa administrazioaren hiru mailen artean (2008)



Emandako datuen arabera, foru administrazioak bideratu du diru gehien tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko zerbitzuak eta baliabideak abiarazten eta egokitzen, baita emakumeek oro har eta emakume taldeek bereziki bizi duten gizarte bazterkeria zein diskriminazio anizkoitz egoerak hautemateko, hedatzeko eta desagerrarazteko ere.

Arauk sortzea eta egokitzea

Sortutako edota egokitutako 58 arauetatik herena (% 34,5; n=20) lan arloari dagokio eta honakoak dira gehien agertutakoak:

- Lizitazioak eta diru-laguntzak esleitzeko irizpide gisa, erakunde lizitatzailleek edo diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek berdintasun politikak izatea sartzeari (n=3).
- Arauk arautzeko dekretuetan lehentasuna ematea emakumezkoek sustatutako proiektuei, mikroenpresak sortzeko eta garatzeko laguntzen atalean (n=2).
- Laneko bilerak edo hainbat pertsonaren parte-hartzea beharrezko duten beste jarduerak egiteko ordutegia zehaztea, jarduera horiek ordu edo egun jakinetan ezin egin ahal izateko moduan (n=2).
- Berdintasun politikak dituzten erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko erakunde izendatzea (n=2).

- Berdintasun diagnostikoetan eta planetan gutxienez nahitaezkoak diren edukiak sartzen direla bermatzeko beharrezko prozedurak ezartzea (n=2).

Interesgarria da nabarmentzea, halaber, abenduaren 23ko Nekazaritza eta Elikadura Politikaren 17/2008 Legearen 75. artikuluan Emakume Nekazarien Estatutua sartu izana.

Nabarmendu beharreko beste datu bat da genero ikuspegia kontuan hartzen duten klausulak edo irizpideak egin beharreko proiektuetan sartzea eta erakunde onuradunetan berdintasun politikak ezartzea diru-laguntzei, lizitazioei eta hitzarmenei dagokienez (n=20; % 34,5).

Azkenik, hiru ekintzaren berri eman dute; horien bitartez, dagokion araudian hirigintza, ingurumen eta garraio publikoaren eremuko erabaki eta plangintza talde guztiek emakumeen presentzia parekidea izan dezaten lortzeko behar diren neurriak txertatu dira.

Izandako 58 ekintzetatik 18tan (% 31) aldez aurretik diagnostiko bat egin da, araua prestatu edota aldatu aurretik. Hara zer aitatzen duten erakundeek gai horren inguruan:

- Horniketa lehiaketetan eta oposizioetan dagokion esparruko sexuen arteko ordezkartzaren analisi estatistikoa egiten da.
- Ez modu espezifikoan, baina bazegoen araudiaren eraginpeko eremuan emakumeen egoerari buruzko alde aurreko informazioa. 1999ko nekazaritza erroldaren eta Nekazaritza Sailak egindako *Emakumea landa ingurunean, 2004* ikerketaren bidez, emakumeek nekazaritzaren alorrean bizi dituzten baldintzen berri ematen da.
- Aurreko uztarketa dekretuaren (2002an onartuan) populazio onuradunaren emaitza aztertu zen. Programaren ebaluazioaren ondorio gisa, seme-alabak zaintzeko lan-uzteak edota lanaldi murrizketak oso gizonezko gutxik eskatzen zituztela ikusi zen. Horren ondorioz, ondorioztatu genuen, batetik, gizonezkoek seme-alabak zaintzeko inplikazio eskasa zutela (aurreko dekretuaren onuradunen % 6,23 izan ziren gizonezkoak), eta, bestetik, bikotekideen erantzunkidetasuna eskasa zela (familia onuradunen % 1,77ren kasuan bakarrik erabili zuten aurreko dekretuak finkatutakoa bi bikotekideek erdi bana). Horretarako, dekretua aldatu egin zuten, eta bikotekide bakoitzeko lan-uzte zein lanaldi murrizketa sariduna gozatzeko denbora mugatu zuten. Horrenbestez, diruz lagundutako denbora-tartea handiagoa zen bi guraso dituzten familien kasuan, baldin eta bi kideak inplikatzeko baziren zainketan. Era berean, lan-uzte sariduna gozatzeko denbora-tartea murriztuta, hainbat urtez luzatzen ziren lan


uzteak makurtzea galarazi nahi zen; izan ere, emakumeek lan mundua uztea eragiten baitzuten, eta kalte egiten baitzien eredu horrek lana eta familia uztartzeko egindako lorpenei.

- Tratu txarren eta sexu erasoen inguruko salaketen estatistikak aztertu zituzten, eta, biktimak emakumezkoak diren aldetik, haiei zuzendutako akordioa prestatzeko erabakia hartu zuten.
- Araudia prestatu aurretik, lehen mailako diru-laguntza kontzeptuak ezarri zituzten.
- Enplegu Sailaren plan estrategikoaren barruan, lan merkatuan egoera okerrean dauden taldeei laguntzeko erabakia hartu zuten. Alde horretatik, errealitatea da emakumezko langabe tasa handiagoa dela gizonezkoena baino; gainera, lan prekarioagoak dituzte, aurrera egiteko aukera gutxiago, eta abar.
- Gasteizko merkataritzaren inguruko datuak extrapolatu zituzten.
- 4/2005 Legea aztertzea, eta bertan deskribatutako arauak aplikatu behar dituztenei material idatzietan, DVDetan, CDetan eta bestelakoetan nola aplikatu jakinaraztea.
- Bai maila politikoan, bai teknikoan, aldaketa hori egiteko behar garbia nabari zen, berdintasuna sustatzekotan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun legea bete besterik ez da egin.
- Ez modu espezifikoan, baina bazegoen araudiaren eraginpeko eremuan emakumeen egoerari buruzko alde aurreko informazioa. 1999ko nekazaritza erroldaren eta Nekazaritza Sailak egindako *Emakumea landa ingurunean, 2004* ikerketaren bidez, emakumeek nekazaritzaren eta itsasaldearen alorrean bizi dituzten baldintzen berri ematen da.
- Generoaren diagnostiko berezi bat ez da egin, baina baziren lehenagotik ere emakumezkoen baldintzen berri izateko hainbat azterketa; hala nola, *Emakumea landa ingurunean, 2004* eta *1999ko nekazaritza errolda*.
- Ez zen diagnostiko espezifikorik egin; horren ordez, emakumeen arazo espezifikoak biltzen zituen trebakuntza zerbitzuaren esperientziaren datuak jorratu zituzten.
- Ez zuten diagnostikorik egin; izan ere, lehendik ere batzorde hori ia osorik gizonezkoek osatua zen, eta kide-kopuruan paritatea lortzea zen helburua. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barne dokumentu berriak ezartzen du batzordeak paritarioa behar duela izan. Hala, aurreko egoera zuzendu zuten.
- Guraso bakarreko familia irizpidearen aurreko araua izan zen, eta jakintzat eman zuten guraso bakarreko familiei haurtzaindegietarako diru-laguntzak lortzeko abantailak ematea genero ikuspegia kontuan hartzea zela; izan ere, guraso bakarreko familia gehienetan gurasoa emakumezkoa izaten delako.

- Emakumeen presentzia oso nabaria ez dela begi bistakoa izanik, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak emakumezkoen presentzia areagotu nahi izan du. Gai hori Foru Aldundiaren berdintasun planaren segimendu batzordeak jorratu du.
- Ez dute diagnostikorik egin, baina Immigrazio Zuzendaritzak kontuan hartu du genero ikuspegia jorratzen duten proiektuetarako % 5 gehitzea laguntzak eta diru-laguntzak eskatzen dituztenerako.
- Berdintasun legea bete da.

Administrazio Orokorrek eman du araudiak sortzeko edota aldatzeko ekintza gehiagoren berri (n=46; % 79,3).

Gizon-emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko bidean arauak sortzeko eta egokitzeke administrazioaren hiru mailek landutako ekintzak (2008)



Arauak sortzeak edota egokitzeak 1.637 emakumeri, 888 gizoni eta 374 erakunderi edota entitateri egin dio mesede.

Jarraipena

Erakunde publikoek jakinarazi dutenaren arabera, 32 ekintza izan dira programak zein baliabideak balioesteko eta haien jarraipena egiteko mekanismoak abiaraztearekin lotuta. Ekintzen ia erdiak emakumeen kontrako indarkeriari egiten dio erreferentzia (n=15; % 46,9), eta hurrengo gai hauekin daude lotuta:

- *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa* betearazteaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa.
- *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa* aplikatzea.
- Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen kasuetarako ekintza protokoloak.
- Genero indarkeriaren biktime diren emakumeei etxebizitzak esleitzea.
- Etxeko tratu txarren biktimei arreta emateko baliabide judizialak eta polizialak.
- Datu-bilketaren sistematizazioa.
- Emakumeentzako segurtasuna herri eta hirietan.

Era berean, enpleguarekin, hezkuntzarekin, ugaltzeko osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin lotutako programen ebaluazioa eta segimendua jorratzen duten lau ekintza ere badira.


Beste bi ekintza genero ikuspegia garraio publikoan txertatu izanaren segimenduarekin daude lotuta.

Hona hemen beste zenbait ekintza interesgarri: enpresa eta erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko aholkularitza erakunde homologatuen jarraipena egitea; aukeraketa prozesuan berdintasuna errespetatzea dadin eta zerbitzuak ematerakoan sexuagatiko bazterkeriarik egon ez dadin zaintzea; eta euskal herri-kirolen informazioan emakumeek betetzen duten lekuari buruzko diagnostikoaren jarraipena egitea.

Jakinarazitako segimendu-ekintzen % 68,7 (n=22) jakinarazi duen erakundeak berak egin du; gainontzekoetan, kontratatutako kanpo aholkularitza batek egin da.

Era horretako ekintza gehienak Administrazio Orokorraren erakundeek egin dituzte (n=25; % 78,1).

Gizon-emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko bidean segimendurako mekanismoak sortzeko eta egokitzeko administrazioaren hiru mailek landutako ekintzak (2008)



Guztira 32 ekintza izan dira, eta horien % 25ek (n=8) betearazteko ardura zuten erakundearentzako gainkostua izan zuen. Orotara, 306.297 € erabili dituzte. Jarduera mota horretarako foru administrazioak eman du diru gehien: 200.000 €. Bestalde, Administrazio Orokorrak 68.297 € bideratu ditu, eta udalek, berriz, 38.000 €.

III. LORTUTAKO EMAITZEN LABURPENA

Emaitzak aurkezten amaitu ostean eta balorazio bat egin aurretik, orain artean azaldu ditugun atalen laburpena egin dugu. Hala, urteko ebaluazio honetan hautemandako emaitzen ikuspegi orokorra izango dugu, eta aurreko urteetako emaitzekin alderatu ahal izango ditugu.

1. EKINTZEN EZAUGARRI OROKORRAK

2008an orotara 1.195 ekintza izan dira. Nolanahi ere, 1.087 ekintza onartu dituzte gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintza bezala.

- **Ardatz estrategikoak:**

Aurreko ebaluazioetako moduan, erakunde publikoek mainstreaming-arekin eta jabeakuntzarekin eta partaidetza politikoarekin lotutako ekintzei eman diete lehentasuna; ekintzen % 73,9k (n=800) bi ardatz horiei egiten diete erreferentzia.

- **Esku-hartze esparruak:**

Esku-hartze esparruei lehentasuna emateko joerari eusten zaio: Berdintasunerako zerbitzu nagusiak (n=375; % 39,7), gizarteratzeak (n=179; % 16,5), kulturak (n=159; % 14,2) eta lanak (n=118; % 10,9). Era berean, azken hiru esparruetan ekintza kopuru txikiagoa izan dela ikus daiteke (% 7, % 19 eta % 7 gutxiago). Lehengoa, berriz, % 10 handitu da.

- **Laugarren planeko programak**

Sei esku-hartze esparruetan abian ipinitako ekintzen % 89,9k (n=519) hemeretzi programa horiei egiten diete erreferentzia (planak planteatzen duenaren % 59,4). Horrek erakusten duenaren arabera, hauek dira esku-hartze esparru bakoitzaren joerak:

Kultura: kulturaren genero ikuspegia txertatzea; emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan; emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan; eta esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea.

Hezkuntza: ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea; eta eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza.

Lana: Enplegua berdintasun baldintzetan lortzea; eta emakume eta gizonen arteko lanbide baldintzak parekatzea.

Gizarteratzea: Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa jasaten duten emakumeen baldintzak eta maila hobetzea; eta tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea.

Osasuna: emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitzeke ahalmena areagotzea; osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea; eta emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea.

Hirigintza eta ingurumena: genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politiketan eta proiektuetan kontuan hartzea; eta hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdin parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan.

- **Laugarren planaren helburuak**

Administrazioek sustatutako berdintasun politiken inguruko azterketa gehiago zehaztuz gero, ikusiko dugu landutako ekintzen % 67,3 laugarren planean aurreikusitako 76 helburuetatik 17 lortzeko izan direla (% 27,6):

Berdintasunerako zerbitzu orokorrak: erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea; gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea; berdintasuna bultzatzea xede duten elkarten sarea handitzea eta sustatzea; administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan; eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea.

Kultura: emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea eta emakumeek tradizioz gizonek egin izan dituzten kirolek sarbidea izatea, bai eta gizonek tradizioz emakumeek egin dituzten kirolak praktikatzeko ere; emakumearen kultura eta arte sorkuntza bultzatzea, bai eta gizartearen ikuspuntu ez-sexista bultzatzen duena ere; eta pertsonen euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak zein edukiak baztertzeko, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriak hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere.

Hezkuntza: ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea.

Lana: enplegu zerbitzuetan genero ikuspuntua txertatzea; industriako sektore tradizionaletan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horrelako lanpostuetan aritzen diren emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea; administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduerari ematea; eta sektore publikoan eta pribatuan erantzukizuneko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea.

Gizarteratzea: administrazio publikoetako gizarte ekintza sailletako diagnostikoetan, plangintzetan eta ebaluazioetan genero ikuspuntua txertatzea; pobrezia egoeran eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera; indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea; tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea.

- **Esku hartzeko erabilitako tresnak**

Administrazio publikoek gizon-emakumeen berdintasuna lortzeko programak ezartzeko gehien erabili dituzten esku-hartze sistemak sentsibilizazioa, trebakuntza eta dibulgazioa eta baliabide zein zerbitzuak sortzea eta egokitzea izan dira; egindakoen erdia baino gehiago era horretakoak izan dira (n=609; % 59,8).

- **Honako taldeei zuzenduta:**

Antolatutako ekintzen hartzaile nagusiak, beste behin ere, hauek dira: emakume helduak, oro har (n=156; % 14,4); administrazio teknikariak (n=142; % 13,1); emakumeen elkarteak (n=98; % 9,1); eta gizon helduak, oro har (n=88; % 8,1).

Gizon-emakumeei, oro har, zuzendutako ekintza kopurua nabarmen gutxitu dela ikusten da. Seguruenik, sentsibilizazio eta informazio jarduerak izan duten jaitzierarekin lotuta egongo da

(% 20 gutxiago, 2007ko datuekin alderatuta). Era berean, emakume elkarteei zuzendutako ekintza kopurua ere murriztu da (% 35 gutxiago).

Hauek izan dira beste talde garrantzitsu batzuk: tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeak; hezkuntzako profesionalak; hiru administrazioetako politikariak; aukera berdintasunaren alorreko profesionalak; hiru lurralde historikoetako toki administrazioa; eta nerabeak eta gazteak.

2. Ardatz estrategikoetan abian ipinitako ekintzak

▪ MAINSTREAMING ARDATZA

Administrazioen barruan mainstreaming-a sustatzeko jorratutako 406 ekintzen % 72,4 (n=294) plana ezartzera bideratutako neurriak dira; berdintasun politiken plangintzak egitera (programak eta planak eginda) eta politika hauek ebaluatzen; baita administrazioaren barruan berdintasun politikak garatzera bideratutakoak ere.

Ekintzen % 27,6 (n=112) enplegu zerbitzuetan, kulturen, gizarte zerbitzuetan, osasun sisteman, garraioan, hirien antolamenduan eta ingurumenen genero ikuspegia txertatzeko izan dira.

▪ JABEKUNTZA ARDATZA

Emakumeen jabeakuntzaren inguruan, orotara 392 ekintza egin dira; lehentasunezko zazpi esku-hartze ildo nabarmentzen dira erakunde publikoentzat, datu kuantitatiboan arabera (orotara egindakoen % 73 biltzen dute): 1) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan; 2) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan; 3) Enplegua berdintasun baldintzetan lortzea; 4) Emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea; 5) Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak eta maila hobetzea; 6) Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitze ahalmena areagotzea; eta 7) Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdinean parte hartzea, nola diseinuan eta plangintza, hala hobekuntzetan.

▪ KONTZILIAZIOA ETA KOERANTZUKIZUNA ARDATZA

Abian ipinitako 65 ekintzak orotara egindakoen % 6 osatzen dute eta aurreko urteetako joerari eutsi zaio. Ekintzen bi heren lau programa hauetan daude sartuta: laguntza zerbitzuak eta langile biziak, familia biziak eta biziak pertsonala uztartzeko neurriak; autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak; eta, neurri txikiagoan bada ere, erantzunkidetasun kultura eta zaintzaren etika sustatzea, eta denbora eta eskolako azpiegiturak egokitzea zein berrantolatzea.

▪ ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Guztira 217 ekintza egin dira; hau da, orotara eginikoen % 20. Ardatz horrek aurreko urteetako besteko pisua izaten jarraitzen du, eta gauza bera gertatzen da abian ipinitako ekintzen % 71 biltzen duten hiru programekin ere: 1) Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea; 2) Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza; eta 3) Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea.

3. LAUGARREN PLANAK LORTU DUEN EXEKUZIO MAILA

- **Ardatz estrategikoak:** programa eta helburu gehien betearazi duen ardatza emakumeen kontrako indarkeria lantzen duena da; izan ere, planean aurreikusitako programen eta helburuen % 100 egin dituzte. Halaber, helburu bakoitzerako batez beste 14,5 jarduera antolatu dituzte. Bestalde, nabarmentzekoa da mainstreaming-ari eskainitako ardatzean lortutako exekuzio maila, programa guztiak abiarazi baitira eta, batez, beste, 27,1 jarduera antolatu baitira ardatz hori lantzeko (guztietan batez bestekorik altuena).
- **Esku-hartze esparruak:** inguru honetan ere exekuzio maila handia izan da; izan ere, programen eta helburuen % 80 eta % 100 artean abiarazi dira. Nolanahi ere, helburuak jorrazteko erabilitako intentsitate maila kontuan hartzen badugu (hau da, helburu bakoitza lantzeko antolatutako ekintza kopurua), ikusiko dugu kulturak, lanak

eta gizarteratzeak izan dutela betearazpen mailarik handiena; hiru esparru horien betearazpen maila % 80 eta % 100 artekoa izan da, eta helburu bakoitza lantzeko jarduera kopurua ertaina/handia izan da (17,7, 10,7 eta 12,8, hurrenez hurren).

Era berean, programa batetik bestera alde nabarmenak ikusten dira, kontuan hartzen badugu abian ipinitako guztiaren % 82,4 programen erdiari baino gutxiagori dagokiola (n=15). Gauza bera gertatzen da helburuekin ere, 68 helburuetatik hamabik biltzen dituzte ekintzen erdiak.

4. LAUGARREN PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK

- Sustatzearekin eta koordinazioarekin lotutako neurriak

Laugarren plana sustatzeko eta koordinatzeko 32 ekintza izan dira. Horietatik: hamar gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratiboak sortzearekin lotutakoak izan dira, horietan nabarmenena genero arloko programa teknikari postua izan da, Jaurlearitzako zazpi sailetan; zazpi administrazioaren hiru mailetako erakundeetan barruko koordinazio egiturak sortzearekin lotuta egon dira; hiru erakunde arteko koordinazio egiturak sortzearekin; eta bi gizarte partaidetzarako egiturekin. Gainontzeko hamar ekintzak Administrazio Orokorrean, foru administrazioan eta tokian tokikoan gizon-emakumeen berdintasunerako dauden egituretan antolatuta egin dituzte, berdintasunaren segimendua eta sustapena egiteko.

- Programazioa eta ebaluazioa

2007an hamahiru programazio ekintza egin dituzte: bederatzi erakundek berdintasun planak prestatu edota onartu dituztela jakinarazi dute; Jaurlearitzako lau sailek adierazi dute berdintasunerako urteko programa egin izana.

Emakundek eta hiru foru aldundiek diagnostikoak eta planak prestatzeko diru laguntzen berri eman dute, toki erakundeentzat.

2008ko datuek erakusten dute EAEn 58 udalek dutela berdintasun plana (hamaika udalerritan planak eskualde mailakoak dira); hau da, 2007an baino bost udalergi gehiago.

5. Erakunde publikoetan genero ikuspegia errazago txertatzeko ekintzak

2008an orotara egindako ekintzen % 26,6 (n=288) genero ikuspegia erakunde publikoetan txertatzera bideratuta egon dira. Ekintza horietan, erakunde publikoek batez ere honako eskuhartze erreminta hauek erabili dituzte: prestakuntza (n=85; % 29,9); ezagutza sortzea (n=65; % 22,6); sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena (n=46; % 16); bai eta baliabideak zein zerbitzuak sortzea eta egokitzea ere (n=58; % 20,1). Eraitza horiek 2007koen oso antzekoak dira.

Jakintza sortzea

Jakintza sortzeko ekintza motarik garrantzitsuenak honako hauek izan dira: **sexuaren aldagaia modu sistematikoan txertatzea** azterketak egiterakoan (% 29,2); **gizon-emakumeen egoeraren berri izateko diagnostikoak egitea** (% 26,5); eta **generoaren arabera inaktuaren ebaluazioak egitea** (% 7,8). Azken ekintza horri dagokionez, Emakundek adierazi zuen, ebaluazio mota hori egiteko jarraibideak argitaratu zituztenetik (2007ko otsailaren 13a) 2008ko abendura arte, generoaren araberako eragina aztertzen duten 151 txosten jaso zituztela. Horrek esan nahi du Administrazio Orokorrek ez duela ezaugarri horiek dituzten ekintza guztien berri eman.

Era horretako jakintza ekintzen % 73,8 Administrazio Orokorren erakundeek eginak dira.

Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena

Ezaugarri horiek dituzten 46 jarduera izan dira, eta horietatik gehienak (% 67,4; n=31) planaren ekintza hauekin daude lotuta:

- Hizkera ez-sexistaren erabilerarekin lotutako materialak prestatzea eta orientazioa eskaintzea (n=17).
- Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea eta genero indarkeriaren inguruko materiala, datuak eta jarduera protokoloak banatzea horien artean (n=6).
- Teknikariak eta politikariak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea (n=8).

Sentsibilizazio ekintzen % 78,3 Administrazio Orokorra eginak dira (n=36). 2007an portzentaje hori txikiagoa izan zen: % 58,2. Datu horiek erakusten dute, 2007ko datuekin alderatuta, foru eta toki administrazioek nabarmen murriztu dituztela administrazio barrurako antolatutako sentsibilizazio eta informazio jarduerak.

Ekintza mota horiek jaso zituzten 1.327 pertsonen % 27,1 emakumeak izan dira, eta % 72,9 gizonezkoak. Datu horiek oso bestelakoak izan ziren 2007an eta aurreragoko urteetan; izan ere, jarduera horietan parte hartu zuten hamar pertsonatik sei emakumezkoak izan ziren.

Pertsona horien talde profesionalari dagokionez, berriz, % 84,9 erantzukizun teknikoren bat duten administrazio profesionalak dira. Datu hori koherentea da honako honekin: Administrazio Orokorra da ekintza gehien abiarazi duen administrazioaren maila, eta, era berean, diru kopuru handiena bideratu duena (guztira horretarako bideratutakoaren % 69,9).

Trebakuntza

Administrazioaren barruan genero ikuspegia errazago txertatzeko helburuarekin 85 trebakuntza ekintza egin dira. Horien % 78,8 (n=67) honako hauekin daude lotuta:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko trebakuntza (hainbat alorretako administrazio profesionalak eta politikari zein teknikariak (n=27)

- Genero ikuspegia bakoitzaren lan eremuan txertatzeari buruzko trebakuntza (lana, gazteria, drogazaletasuna, aisialdia, Tokiko Agenda 21, etab.) (n=14).
- Hainbat alorretako profesionalei emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko trebakuntza espezializatua eskaintzea, baita jarduera protokoloak prestatzeko eta aplikatzeko trebakuntza ere (n=14)
- Irakasleentzako, Berritzeguneetako arduradunentzako eta aisialdiko begiraleentzako trebakuntza hezkidetzaren inguruan (n=7)
- Trebakuntza hizkera ez-sexistaren erabilera gai hartuta (n=5)

Administrazio Orokorrak egin ditu trebakuntza ekintza gehien (% 48,2).

Trebakuntza 2.555 pertsonak jaso dute (iaz baino % 32 gutxiago). Gizon-emakumeen proportzioa orekatu samarra da: % 56,9 emakumezkoak (n=1.455) eta % 43,1 gizonezkoak (n=1.100). Poliziako profesionalek jaso dute trebakuntza jarduera gehien (% 33,6). Trebatutako pertsona kopuru nabarmena izan duen beste talde profesionala ardura teknikoa duten Administrazio Orokorreko, foru administrazioko eta toki administrazioko langileak izan dira; guztira, 1.010 pertsona.

Administrazio Orokorreko erakundeak izan dira trebakuntza jarduerak egiteko diru gehien bideratu dutenak, % 74,6 hain zuzen ere (2007an baino % 34 gehiago).

Baliabideak eta zerbitzuak

EAEko Administrazio Publikoan genero ikuspegia errazago txertatzeko baliabideak eta zerbitzuak sortzeko zein egokitzeko izandako 52 jardueretatik % 76,9 (n=40) honako hauek izan dira:

- Zenbait gairen inguruan aholkuak eta laguntza eskaintzea eta berdintasun politikaren inguruko proposamenak egitea. Gai horiek izango dira, besteak beste, aurrekontuak,

hezkuntza, lana, estatistikak, diru-laguntzak, trebakuntza, kontziliazioa, langileak, gazteria eta aisialdia. (n=15).

- Gidak edo material didaktikoak prestatzea eta/edo banatzea (hizkeraren erabilera ez-sexista; laneko jazarpena edo sexu jazarpena gertatzen den egoeretan bitartekaritza eskaintzea; berdintasun alorrean lan egiteko langileak kontratatzea; osasuna; emakumeen aurkako indarkeria; turismoa; nazioarteko lankidetzak; eta kirola (n=10)
- Emakumeen eta gizonen berdintasunean espezializatutako teknikariak edo aholkulariak kontratatzea, lanaldia hedatzea (n=6)
- Trebakuntzan dauden beharrak detektatzeko, trebakuntza planak prestatzeko eta, oro har, jardueren plangintza egiteko barneko lantaldeak sortzea (n=5).
- Diru-laguntzak, laguntza ekonomikoa (n=4)

Ekintza horien % 56,9 Administrazio Orokorrek eginak dira (n=33).

Jarduera mota hori garatzeko orotara egindako gastuaren % 42,8 foru administrazioari dagokio, eta % 37,5 Administrazio Orokorrari.

Arauk sortzea eta egokitzea

Orotara 23 ekintza izan dira, eta, horietatik % 47,8 kontratazioetan, diru-laguntzetan edota lankidetzak hitzarmenetan ekintza positiboko irizpideak txertatzearen ingurukoak dira. Honako hauek burutu dituzte:

- Hiru ekintza gizon-emakumeen arteko paritatea bermatzen duten klausulak txertatzearen ingurukoak izan dira sarien epaimahaietan, lehiaketetan eta abarretan.
- Berdintasun gaiak txertatzea hautaketa selektiboetarako deialdien oinarrietan (n=1).
- Praktika klinikorako gidak prestatzearen inguruko araudiak erregulatzea (n=1).

Duen garrantzia dela eta, nabarmentzekoa da autonomia erkidegoko eta bere sektore publikoko administrazioaren kontratazioan gizarte eta ingurumen irizpideak zein bestelako politika publikoak sartzeari buruz onartutako ebazpena.

Ekintza horien erdia gutxi gorabehera (% 52,2; n=12) Administrazio Orokorreko erakundeek egin dute.

Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea

Guztira segimendurako eta ebaluaziorako hamaika ekintza egin dituzte; horietatik sei emakumezkoen kontrako indarkeriarekin daude lotuta:

- Berdinsarea sareko segimendu batzordea koordinatzea eta dinamizatzea.
- Fiskaltzarekin etengabeko harremanean jarraitzea etxeko indarkeria egoeren jarraipena egiteko. Kasu larrienei buruzko informazioa trukatu da, bi alderdiek egin beharreko jarduerak koordinatuz eta etxeko indarkeria eta genero indarkeriaren kasuistika jorratuz.
- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzak emateko programa arautzeko dekretuaren zirriborroa egiten parte hartzea.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko II. akordioaren zirriborroa prestatzeko lanetan parte hartzea.
- Indarkeriaren Aurkako Protokoloaren segimendua egiteko batzordean parte hartzea.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundeen arteko akordioa betetzeari buruzko ebaluazioa.

Hamaika segimendu ekintzetatik sei Administrazio Orokorren erakundeek eginak dira; lau foru administrazioak; eta bat Eudelek.

6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sektorialak eta transbertsalak

Erakunde publikoek emandako datuek erakusten dute 2008an, pixka bat bada ere, honako jarduera mota hau murriztu egin dela (55 gutxiago): aukera eta tratu berdintasuna sustatzera zuzenean bideratutakoak; emakumeek oro har bizi dituzten diskriminazio egoerak eta gizarte bazterkeria egoeran zein diskriminazio anizkoitza izateko arriskua duten emakume talde espezifikoak hautematera, ezagutaraztera eta desagerraraztera bideratutakoak. Guztira 732 ekintza egin dira; hau da, orotara eginikoen % 67,6.

2007ko antzera, ekintzen % 73,8 laugarren planaren lau esparrurekin lotuta daude: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak, kultura, gizarteratzea eta lana.

Ekintza horien % 62,7 planean ageri diren eta hainbat esku-hartze esparru jorratzen dituzten hamabost helburu hauekin daude lotuta:

- **Kultura:** Emakumeen sormen kulturala eta artistikoa areagotzea baita gizartearen ikuspegi ez sexista bultzatzen duena ere (n=74; % 10,1);
- **Elkartegintza:** Berdintasuna sustatzen lan egiten duten elkarteak ugartzea (n=72; % 9,8); Pobrezia egoeran eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera (n=37; % 5,1);
- **Gizarteratzea:** Erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=43; % 5,9);
- **Emakumeen aurkako indarkeria:** Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea (n=32; % 4,4); Pertsonak euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak hedabideetatik baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriak hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere (n=28; % 3,8); Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan (n=20; % 2,7); Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (n=20; % 2,7); Ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez

adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea (n=17; % 2,3); Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babes jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea (n=15; % 2); Tratu txarren eta sexu erasoen biktima direnen arreta beharrei kalitate eta eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta erantzutea eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programan jasotako neurriak ezartzen direla bermatzea (n=13; % 1,8).

- **Lana:** Sektore publikoan eta pribatuan erantzukizuneko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea (n=20; % 2,7); Enpresa ekimenak abian jartzearen eta indartzearen alorrean kopuru aldetik dagoen desberdintasuna murriztea, batez ere, ordezkari txikiegia duten sektore eta lanbideetan sustatzaileen partaidetza areagotuta (n=16; % 2,2); Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduerari ematea (n=13; % 1,8).
- **Herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea:** Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (n=39; % 5,3).

Baliabideak eta zerbitzuak sortzea zein egokitzea, eta sentsibilizatzea, informatzea eta jakinaraztea dira egindako lanaren ia bi heren (n=470; % 64,2); horrenbestez, administrazioek tratu eta aukera berdintasunerako erabilitako esku-hartze erreminta nagusiak direla esan dezakegu, baita emakumeek bizi dituzten diskriminazio egoerak hautemateko, jakinarazteko eta desagerrarazteko ere. Nolanahi ere, planean zehaztutako beste lau esku-hartze erremintak erabilia ekintza gehiago ere egin dira, hurrengo azpiataletan ikus dezakegun moduan.

Jakintza sortzea

Jakintzarekin lotutako 82 ekintza egin dira, eta horietatik ia erdia hainbat gai jorratzen dituzten zortzi ekintza ildorekin daude lotuta, laugarren planean definituta bezala:

- **Emakumeen aurkako indarkeria:** etxeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoiak eta eragina aztertzea, baita gertaera horiek salatzeke erabakian esku hartzen duten faktoreak ere. Arreta berezia ipiniko zaie diskriminazio anizkoitza bizi duten

emakumeek salaketa ipintzeko edota bertan behera uzteko erabakian esku hartzen duten faktoreei (ezgaitasunen bat duten emakumeak, etorkinak, adin txikikoak...). Era berean, kontuan hartuko da zergatik emakumeen portzentaje nabarmen batek zergatik ez dakien eraso baten ostean nora jo, nahiz eta horretarako baliabideak bideratu (n=7); EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko oztopoak aztertzea eta neurri zuzentzaileak ezartzea (n=4); Emakumeak udalerrian seguru sentitzen ez diren tokiak identifikatzeko diagnostikoa egitea (garraio publikoak barne). Horretarako, beharrezkoa da udalerriko emakumeek parte hartzea. Lehen mailako esku-hartzea eskatzen duten puntuak adierazi beharko dira (n=3); eta parte hartzeko prozesuak dituzten ikerketak egitea, biktimen arreta hobetzeko eta arreta zerbitzu hobeak antolatzeko bide emango duten metodologia egokiekin (n=6).

- **Kirola:** Eskolan eta eskolaz kanpo kirolean generoen arteko ezberdintasuna eragiten duten faktoreak ikertzea, batez ere gizartearen genero ikuspegiaren oinarritutako nesken eta mutilen kirol praktikak mugatzen dituzten faktoreak (n=3).
- **Osasuna:** Ikerketa epidemiologikoak sustatzea elikaduraren inguruko jarreraren nahasteen inguruko benetako eraginak eta nahasteen arrazoiak jakiteko (n=4).
- **Berdintasun politikak, oro har:** genero ikuspegia duten politika publikoen inguruko jakintza sorrarazten duten azterketak egitea (n=3); Herritarren iritziari buruzko informazioa biltzea sustatzea, bai metodologia kuantitatiboak (inkestak), bai kualitatiboak (eztabaidaguneak, foroak, lantaldeak) erabilia (n=3).

Ikerketa, diagnostiko eta abar horien % 58,5 Administrazio Orokorraren erakundeek eginak dira, eta horiek dira, gainera, diru portzentaje handiena bideratu dutenak (guztira bideratutakoaren % 64,1).

Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena

Guztira izandako 227 jardueren erdia gutxi gorabehera (% 50,2) laugarren planeko gai hauek jorratzen dituzten hamar ekintzen ingurukoak dira:

- **Emakumeen aurkako indarkeria:** berdintasun politikak hedarazteko prozesuak ugaritzea komunikazio kanpainak eginda, komunikabideetan berdintasunarekin lotutako auziak agertzeko ahalegina eginda, hitzaldiak, jardunaldiak edota kongresuak

antolatuta... (n=31); Emakumeen kontrako indarkeriaren eta haren manifestazioen erroen inguruko sentsibilizazio kanpainak egitea herritarrentzat, batez ere esparru sozialean, kulturean eta mediatikoan. Guztia ere irudi eta eduki sexistak identifikatzeko eta salatzea animatzeko (n=28); gurasoentzako informazio eta trebakuntza hitzaldiak antolatzea, emakumeen kontrako indarkeriari buruz (n=6); prentsan, irradian eta telebistan komunikazio kanpainak sortzea, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko helburuarekin (n=6); Indarkeriaren zikloaren eta horren biktima diren emakumeentzako laguntzen inguruko sentsibilizazio, informazio eta hedapen-jarduerak egitea. Helburu nagusia herritarrei garaiz antzematen erakustea eta laguntzaile informal bezala joka dezaten lortzea da (n=5).

- **Kultura:** emakume artistek arteko topaketak eta jardunaldiak antolatzea beren lana balioesteko, esperientziak trukatzeko eta sareak sortzeko moduak sistematizatzeko (n=22); administrazioak sortu edo sustatutako kultura eta arte ekoizpenaren hedapen jardueretan emakumezkoek egindako lanak eta emakumeek kulturari egindako ekarpena islatzen dutenak sartzeko (n=12).
- **Emakumeen arteko elkartegintza:** Emakumeen elkarteak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko lanetan aritzen direnak agerikoago egitea (n=7).
- **Sexualitatea:** Mutilek eta neskek jarrera sexual autonomoa eta arduratsua izan dezaten informazioa eta hezkuntza eskaintzeko programak prestatzea (n=4).
- **Hizkuntzaren erabilera:** Dokumentuak berrikustea eta egokitzea hizkera ez-sexista izan dezaten (n=4; %).

Toki administrazioak egin dituzten sentsibilizazio ekintzen erdia baino gehiago (n=127; % 55,9).

Guztira izandako 227 ekintzetatik hamabost izan dira etorkin taldeetara egokitutakoak, eta beste 25 urritasunen bat duten pertsona taldeetarako. Lana eta familia errazago uztartzeari dagokionez, berriz, 88 ekintza izan ziren bi ereduak uztartzeko neurriren bat aurreikusten zutenak.

Sentsibilizazio eta informazio jarduerak jaso dituzten pertsonen % 91,7 EAEko gizarteari dagozkio oro har (9.933). Sexuka banatutako datuek erakusten dute pertsona horien % 79,6 emakumezkoak direla eta % 20,4 gizonezkoak.

Trebakuntza

Guztira 90 trebakuntza jardura egin dira (2007an baino hogeitahi gehiago), eta horietatik biheren laugarren planeko hamar ekintza ildorekin daude lotuta:

- Emakumeentzako garapen pertsonalaren inguruko ikastaroak eskaintzea, arlo guztiak jorratuz (n=23).
- Emakume ekintzaileei eta enpresaburuei zuzendutako programetan ekintzaileen jardueran faktore psikosozialek duten eraginari buruzko gogoetarako moduluak sartzea eta zeharkako gaitasunak eta berrikuntzarako gaitasuna izateko trebakuntza ere eskaintzea, esperientzian oinarritutako metodologia erabilia (*mentoring, coaching*, eta abar) (n=6).
- Indarkeriaren prebentziorako mintegiak, hezkuntza zentroein zuzenduta (n=5)
- Elkarte, talde eta gizarte eragileentzako biltzeko, gogoetak egiteko eta esperientziak trukatzeko jardunaldiak antolatzea (n=5).
- Emakumeentzako jabeakuntza ikastaroak (n=4).
- Hezkidetzak ikastaroak (n=4)
- Autodefentsa mintegiak (n=4)
- Emakumeentzako trebakuntza jarduerak antolatzea («bikoteen arazoak», «gatazkak konpontzea», «maitasun arloko negoziazioak»...). Helburua, zeharka bada ere, emakumeek indarkeriaren zikloaren berri izatea eta indarkeriaren biktima izanez gero ziklo horretan beren burua kokatzea izango da (n=3).
- Gizonentzako trebakuntza ikastaroak antolatzea erantzunkidetasunari buruzko jakintzak eta sentsibilitatea sakontzeko. Emakumezkoentzat antolatutakoak, berriz, bizi garapen pertsonala, familiakoa eta profesionala izatearen garrantziaz sentsibilizatzeko izango dira (n=3)
- Prestakuntzaren eskaintzan hainbat modulu sartzea antolaketa eredu berriei, lidergorako estiloari, ekoizpen moduei eta abarrei buruzkoak. Industria sektorean lan bila dabiltzan emakumeentzat prestakuntza osagarria eskaintzeko moduluak ere bai (n=3).

Aipatutako ekintzen erdia emakumeen garapen pertsonalarekin, jabekuntzarekin eta elkartegintzarekin daude lotuta. Aitzitik, bi ekintza bakarrik daude emakumezkoak trebatzera bideratuta, haien enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Orotara egindako jarduera guztien artetik, hogeitaz berriz bereziak dituzten taldeetara egokitu dituzte (gehienak urritasunak dituzten pertsonak). Beste berrogeitan, berriz, lana eta familia uztartzeko neurriak hartu zituzten kontuan.

Trebakuntza jaso duten pertsonen % 80,9 emakumezkoak dira (n=5.957), % 50,4 (n=3.005) EAEko gizarteko biztanleak. Bestalde, trebakuntza jaso dutenen % 48,2 (n=2875) gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten emakume taldeetakoak dira.

Jardueren % 79,7 (n=71) toki administrazioak antolatu ditu; edonola ere, Administrazio Orokorrek bideratu du baliabide ekonomiko gehien trebakuntza jardueretarako (% 84,9).

Baliabideak eta zerbitzuak

Guztira zerbitzuak eta baliabideak sortzeko zein egokitzeko 243 ekintza izan dira, eta horietatik erdia (n=134; % 55) laugarren planean bildutako hamazortzi ekintza ildoekin lotuta (hainbat gai eta arazo jorratzen dituztenak):

- **Elkartegintza eta emakumeen parte-hartzea:** emakume elkarten barruan parte hartzeko prozesuak sustatzea, eta emakumeen jabekuntzari mesede egingo dioten eta gizon-emakumeen berdintasuna handituko duten gaiak zein esparru politikoei lehentasuna ematea (n=4); emakumei eta emakume elkartei eskubideen eta baliabideen inguruko aholkularitza ematea (n=10); emakumeen elkarteentzako eta berdintasunaren alde lan egiten duten beste elkarte batzuentzako diru-laguntzen programak (n=22); berdintasunerako emakumeen elkartei lokalak edota materiala alokatzea (n=5); elkartegintza mugimenduen eta berdintasun politiken arduradunen arteko harreman zein komunikazio mekanismo egonkorak ezartzea, elkarren artean jakintza truka dezaten eta elkartegintza mugimendua indartzeko neurriak eguneratzeko (n=8); emakume elkarteek edota berdintasunaren alde lan egiten dutenek parte hartzeko egiturak dinamizatzea (n=8); emakume etorkinei eta

- gutxiengo etnikoetakoei elkarrekin sortzen eta gizartean parte hartzen laguntzea (n=5).
- **Emakumeen aurkako indarkeria:** sail eta erakunde arteko koordinazioa bultzatzea, indarkeriaren kontrako borrokarako (n=8); Berdinsarea ezartzea eta indartzea: indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko udalerrak. Emakumeen kontrako indarkeriaren kontra egiteko irizpide homogeneousak jarraituko dira, biktimei arreta koordinatua eta hobea emateko helburuarekin (n=5); tratu txarrak edota sexu erasoak bizi dituzten emakumeentzako abegi-etxeei eustea (n=4); genero indarkeriaren biktima diren emakumeak lan munduan txertatzeko programak (n=5); emakumearen kontrako etxeko indarkerian espezializatutako familiako esku-hartze baliabideak abian ipintzea (n=4).
 - **Emakumeentzako babes juridikoa eta psikologikoa:** emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzuak (n=22).
 - **Gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden emakumeak:** laguntza sozial eta ekonomiko osagarriak ezartzea, txirotasunaren feminizazio prozesuek eragindako bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko... (n=8); prostituzioan aritzen diren emakumeek atseden hartzeko eta orientazioa emateko zentroak sortzea... (n=4).
 - **Kirola:** Emakumeen eta gizonen kirol jarduerak babestea emakumezkoen partaidetza gutxiengoa den modalitateetan (n=4).
 - **Zaintzaileak:** Herri administrazioetako gizarte ekintza arloetan autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumei/pertsonari arreta eta orientazioa eskaintzeko zerbitzua sortzea. Honako zerbitzuak eskainiko dira: gogoetarako taldeak, trebakuntza ekintzak, laguntza psikologikoa, gizarte eta ekonomia baliabideen inguruko orientazioa; laguntza emateko eta atseden hartzeko sistemak (n=4).
 - **Gizonezkoak berdintasun auzietan inplikatzeko:** Maskulinitate ereduak eta berdintasunean oinarritutako harreman indibidual eta sozialak lantzeko gizonen lantaldeak sortzea sustatzea (n=4).

Sortutako eta egokitutako baliabide zein zerbitzu gehienak emakumeen elkartegintza eta partaidetza sustatzera daude bideratuta, baita gizonezkoen aldetik indarkeria jasotzen duten emakumeen arreta hobetzera ere.

Guztira izandako ekintzetatik 29 ezaugarri bereziak zituzten taldeetara egokituta egon dira (etorkinak eta urritasunak dituzten pertsonak), eta 42 ekintzatan bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurriak hartu zituzten kontuan.

Baliabide edota zerbitzu horiek jaso dituzten pertsonen % 75 hainbat taldetatik datozen emakumeak izan dira (n=27.812): haurrak (% 36,4); emakumeak, oro har (% 28,9); emakumeen elkarteak (% 13,5); diskriminazio edota bazterkeria anizkoitza izateko arriskuan dauden emakumeak (% 12,7); eta emakume gazteak (% 8,4).

2008an haurtzaroari eta nerabezeroari baliabide gehiago eskaini dizkiotela ikus daiteke; 2007an era horretako baliabideak eta zerbitzuak jaso zituzten pertsonen % 15,4 ziren nerabeak edota haurrak, 2008an, berriz, portzentaje hori % 41,1koa izan da. Batez ere, honako programa hauek aplikatu dira: kirolean berdintasuna sustatzea; koerantzukizuna sustatzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; eta hezkuntza afektiboa eta sexuala lantzea.

Ekintza gehienak Administrazio Orokorrak (% 39,5) eta toki administrazioak (% 39,1) antolatu dituzte, nahiz eta foru administrazioak bideratu duen ekintza horietarako erabilitako diruaren % 72,9.

Arauk sortzea eta egokitzea

Arauk sortzeko edota egokitzeko 58 ekintza izan dira; horietatik herena (% 34,5; n=20) lan arloari dagokio eta honakoak dira gehien agertutakoak:

- Lizitazioak eta diru-laguntzak esleitzeko irizpide gisa, erakunde lizitatzailerak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek berdintasun politikak izatea sartzea (n=3).
- Arauk arautzeko dekretuetan lehentasuna ematea emakumezkoek sustatutako proiektuei, mikroenpresak sortzeko eta garatzeko laguntzen atalean (n=2).
- Laneko bilerak edo hainbat pertsonaren parte-hartzea beharrezko duten beste jarduerak egiteko ordutegia zehaztea, jarduera horiek ordu edo egun jakinetan ezin egin ahal izateko moduan (n=2).

- Berdintasun politikak dituzten erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko erakunde izendatzea (n=2).
- Berdintasun diagnostikoetan eta planetan gutxienez nahitaezkoak diren edukiak sartzen direla bermatzeko beharrezko prozedurak ezartzea (n=2).

Interesgarria da nabarmentzea, halaber, abenduaren 23ko Nekazaritza eta Elikadura Politikaren 17/2008 Legearen 75. artikuluan Emakume Nekazarien Estatutua sartu izana.

Nabarmendu beharreko beste datu bat da genero ikuspegia kontuan hartzen duten klausulak edo irizpideak egin beharreko proiektuetan sartzea eta erakunde onuradunetan berdintasun politikak ezartzea diru-laguntzei, lizitazioei eta hitzarmenei dagokienez (n=20; % 34,5).

Azkenik, hiru ekintzaren berri eman dute; horien bitartez, dagokion araudian hirigintza, ingurumen eta garraio publikoaren eremuko erabaki eta plangintza talde guztiek emakumeen presentzia parekidea izan dezaten lortzeko behar diren neurriak txertatu dira.

Arauk sortzearen edota aldatzearen onuradunak 1.637 emakume, 888 gizonezko eta 374 erakunde edota entitate izan dira.

Administrazio Orokorrak eman du araudiak sortzeko edota aldatzeko ekintza gehiagoren berri (n=46; % 79,3).

Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea

Programak edota baliabideak ebaluatzearen edota haien segimendua egitearen inguruko 32 ekintza izan dira; horietatik, % 46,9 (n=15) sexu erasoak jasan dituzten emakumeen arreta hobetzarekin egon dira lotuta:

- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa betearazteaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa aplikatzea.

- Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen kasuetarako ekintza protokoloak.
- Genero indarkeriaren biktimei diren emakumeei etxebizitzak esleitzea.
- Etxeko tratu txarren biktimei arreta emateko baliabide judizialak eta polizialak.
- Datu-bilketaren sistematizazioa.
- Emakumeentzako segurtasuna herri eta hirietan.

Era berean, enpleguarekin, hezkuntzarekin, ugaltzeko osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin lotutako programen ebaluazioa eta segimendua jorratzen duten sei ekintza ere badira; baita genero ikuspegia garraio publikoan aplikatzearekin ere.

Hona hemen beste zenbait ekintza interesgarri: enpresa eta erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko aholkularitza erakunde homologatuen jarraipena egitea; aukeraketa prozesuan berdintasuna errespetatzen dadin eta zerbitzuak ematerakoan sexuagatiko bazterkeriarik egon ez dadin zaintzea; eta euskal herri-kirolen informazioan emakumeek betetzen duten lekuari buruzko diagnostikoaren jarraipena egitea.

Adierazitako segimendu-ekintzen bi heren jakinarazi duen erakundeak berak egin du; gainontzekoetan, kontratatutako kanpo aholkularitza batek egin da. Horrek esan nahi du ekintzen % 25ek kostu gehigarria eragin diola betearazteko ardura zuen erakundeari, eta zenbateko hori 306.297 €-koa izan da.

Ekintza gehienak (% 78,1) Administrazio Orokorreko erakundeek egin dituzte, nahiz eta foru administrazioak bideratu duen diru gehien jarduera mota horretara (guztira bideratutakoaren % 65,3).

IV. BALORAZIO OROKORRA

Ondorioei buruzko atal hau egiteko, hiru analisi elementu hartu dira kontuan:

- Laugarren planean adierazitako lau ardatz transbertsaletan egindako ekintzak (mainstreaming-a; jabeakunza eta partaidetza soziopolitikoak; kontziliazioa eta erantzunkidetasuna; eta emakumeen aurkako indarkeria), berdintasunaren alorrean lehenetasuna duten auziak definitzen dituzten heinean, botere publikoek alor horietako ekintza sustatu eta betearazi beharko lituzkete.
- Administrazioaren maila bakoitzak egindako ekintzak: eskumenak, erantzukizunak eta baliabideak oso desberdinak diren aldetik, uste dugu oinarritzkoa dela bakoitzak zer joera duen argitzea berdintasun politikei dagokienez; non fokatzen dituen baliabideak; eta zenbateraino betetzen dituen laugarren planaren inguruan beren gain hartutako erantzukizunak (betiere beren eskumenak kontuan izanik).
- 2008an egindako ekintzak eta 2007koak alderatuta, eta bi urte horietan hautemandako joerak aztertuta.

Analisi eta balorazio mota horrek erakunde publikoen plangintzak gidatzen lagun dezake, gizon-emakumeen berdintasun politikei dagokienez.

Lehenik eta behin, nabarmendu beharra dago EAEko botere publikoek 2007an gizon-emakumeen arteko berdintasunarekin lotuta egindako lanak igoera handia izan zuela (% 46 gehiago). Edonola ere, 2008an aldaketarik apenas egon dela esan dezakegu.

Laugarren planean planteatutako ardatz estrategikoekin lotuta, ez dugu aldaketa handirik ikusi 2007an hautemandako joeren ondoan:

Mainstreaming ardatza

- Administrazio publikoaren alor guztietan genero ikuspegia txertatzeko ekintza gehienak maila orokorrean ari dira gertatzen. Horrek esan nahi du oso jarduera gutxi daudela genero ikuspegia esparru zehatzetan txertatzera bideratuta (kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza eta ingurumena). Era berean, ikusten da berdintasun legea erabili dela *mainstreaming*erako oinarritzko erreminta gisa (berezi II. izenburuan txertatutako artikulatua, genero ikuspegia botere eta administrazio

guztietan txertatzeko neurriei dagokiena, *mainstreamingerako* oinarrizko erreminta den aldetik; esate baterako, egin beharreko proiektuetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten klausulak edota irizpideak txertatzea, eta berdintasun irizpideak ezartzea diru-laguntzak, lizitazioak eta hitzarmenak jasotzen dituzten erakundeetan zein entitateetan).

- Hiru administrazio maileri dagokienez, berriz, datuek adierazten dutenaren arabera, Administrazio Orokorrean eta foru administrazioan genero ikuspegia txertatzera bideratutako ekintzek pisu espezifiko handia dute, bi administrazioek orotara egindako lanarekin alderatuta (% 34,2 eta % 31, hurrenez hurren). Ez da gauza bera gertatzen toki administrazioarekin; izan ere, ekintza mota horrek udaletan egindakoaren % 14,9 besterik ez baitu osatzen. Posible da, nolabait ere, udaletako berdintasun edota emakumearen sailek baliabide askoz ere gutxiago izatea (bai giza baliabideak, bai ekonomikoak) berdintasuna gainontzeko sailetan ezartzeko lanak egin ahal izateko, eta, horrenbestez, beren lehentasuna emakumeei zuzendutako politika espezifikoak antolatzea eta betearaztea izango da. Horrez gain, kontuan izan behar da tradizionalki sail horiek elkartegintza sustatzearekin eta emakumeen arteko jarduera kulturalarekin lotura estuagoa izan duten ekintzak antolatu dituztela. Era berean, litekeena da toki administrazioek gizarte bazterkeria bizitzeko arriskua duten emakume talde espezifikoengan arreta ipini izana.

Jabekuntza eta partaidetza soziopolitikoaren ardatza

- Jabekuntza jarduteko ardatz garrantzitsua da administrazioaren hiru mailetan, batez ere toki administrazioan.
